



Ondo merezitako omenaldia emakume artzainei

Felisa Intxaurbe Larrazabalek, Miren Bengoa Alkortak eta Mertxe Totorikaguena Jaiok merezitako omenaldia jaso dute Axpeko Artzain Egunean. Bizi osoan aritu dira baserriko lanetan beharrean, batez ere artzaintzan eta gaztagintzan. Pozik daude, denbora igaro arren elkarregaz eta osasuntsu daude eta. • 2-3



Mauri Imazek amaitu du urtebetez egunero Urkiola bizikletan igotzeko erronka solidarioa

Astelehenean igo zuen azkenekoz, 30 bat zikilistak lagunduta. Nekatuta bezain hunkituta egin zituen azken metroak, bertaratutakoen txaloen artean. Besteak beste, aurraskua dantzatu zioten. Hezurmuina ematearen garrantzia lau haizetara zabaltzea izan da erronkaren helburua. • 20



Aser Arza durangarra bigarren Hiru Haundiak

Joan zen asteburuan Hiru Haundiak mendi lasterketa jokatu zen, 101 kilometroko proba. Bertan, Aser Arza durangarrak podiumera igotzea lortu zuen, bigarren sailkatuta. "12 ordutik jaistea zen nire asmoa, eta lortu dut", adierazi du mendi korrikalari durangarrak. • 21



Hizkuntza Escuela Oficial
Eskola Ofiziala de Idiomas

Matrikula zabalik

Gelditzen diren plazen banaketa urriaren 20an, eskolan bertan.
Banaketa ordutegia jakiteko, sartu gure web orrian edo deitu eskolara.
Plazak geldituz gero, urtarrilaren 31ra arte eskainiko dira.
Zalantzarik baduzu, deitu eskolara.
72,36€ ikasturte osoa
www.eoidurangoeo.hezkuntza.net
94 620 33 42 - 94 681 66 45





“Gizonezkoa arduratu da artaldea zaintzeaz, baina atzean andrea izan ez balu ezinezkoa izango zen artzaintza aurrera ateratzea”

Axpeko Artzain Egunean omenaldia egin zieten Felisa Intxaurberi, Miren Bengoari eta Mertxe Totorikaguenari. Emakume artzainek egindako lana goraiatu zuten orain aste bi

ARTZAINZTA • EKAITZ HERRERA

Artzain lanetan ibilitakoak dira hirurak. Horretxek batzen ditu, makina bat lan eta gazta egindakoak direla. Oraina, ostera, patxadaz bizi dute. Lagunak dira, beste ezer baino gehiago. Eta lagunak elkarri egiten dioten bisita horietariko batean harrapatu ditu ANBOTOK erreportaje honetako hiru protagonistak. Mertxe Totorikaguena Jaio (Mañaria, 1934) eta Felisa Intxaurbe Larrazabal (Zeanuri, 1941) Miren Bengoa Alkorta (Otxandio, 1933) bisitatzera joan dira Mekoletako bere baserrira. Badutelako elkarregaz zer partekatu, egunero ez delako sari bat jasotzen. Eguzkiari lepoa emanda jesarri dira hirurak, etxaurreko ortuan eta inguruetan batetik bestera dabilzan katakumeak lagun.

Totorikaguena, Intxaurbe eta Bengoa Axpeko Artzain Egunean omenaldi zituzten orain asteburu

bi. Bizkaiko Latxa eta Karrantzar Arrazetako Ardi Hazleen Elkarteko kideek "ezinbesteko" ikusi zuten hiru emakumeak omentzea, eta sariagaz "baserriko emakume guztiak" omendu gura izan zituzten.

Hiru lagunak omenaldi egun hartakoa gogoratzen hasi dira eta berriak aurrera egin ahala ga-

“Gure bizimodua itzela zen, baina pozik eta konforme gaude. Osasuntsu gaudelako, eta elkarregaz”

rai bateko kontuak erreparatzen amaitu dute. Bateko eta besteko istorioak kontatu dizkiote berripaper honi, belarrira esandako kontutxo txikiak balira legez:

Mertxe Totorikaguena: Etxean denak ziren omenaldiaren jakitun, baina dena ezkutatu ziguten. Familia-koek esaten zidaten: “ama, deitu duzu ile-apaindegira? Axpera joan behar duzu zapatuan”. Eta joateko asmorik izan ezean behartuta eramango nindutela esaten zidaten.

Felisa Intxaurbe: Mirenek bazekien zer bait. E, Miren? Hik bahekinan zeozer!

Miren Bengoa: Egun hotza egin zuen, haizetsua. Norbera botatzeko bestekoa.

Eta euren arteko berriketaldiak halantxik egin du aurrera, irribarre artean, umoretsu. Momentu batez, emakume artzainek egindako lana deskribatzen hasi dira:

F.I.: Senarra artzaina nuen, baina neu arduratzen nintzen gazta egiteaz, bai. Artzaintzan gizonezkoa arduratu izan da gehienbat ardiak zaintzeaz, artaldea gobernatzeaz. Baina gizonak atzean andrea izan

ez balu ezinezkoa izango zen lan guztia aurrera ateratzea. Eta gaur egun ere ezinezkoa da, ondoan beste lagun bat izan ezean.

M.T.: Akordua dudanetik artzain lanetan aritu naiz. Hori bai, ez genuen ardi askorik. Ardi muskil batzuk baino ez. Baserritik bizi ginen. Senarra ez zen inongo fabrikatan ibili. Gasteizera joaten zen bendejan, berdurak eta landareak saltzera. Gauz baturiko esneagaz, gau horretan bertan egiten genuen gazta. Legarra eman, eta atoan gazta egin. Goizean, berdin. Baturiko esneagaz berehala ekiten genion gazta egiteari. Batu ahala gazta egitea onena.

M.B.: Niri hainbat bider tokatu zait Mekoletatik Gordobilera goizeko ordu batean joan beharra. Bildots sasoian, adibidez. Ardia umea egiteko zela ere joan behar izaten genuen zaintza egitera.

“Begira zenbat seme-alaba ditugun hiruron artean: hemeretzi! Gaur egun hemeretzi ume egiteko berrogei”

Egindako lan guztiak utzi du arrastoa. Hiru lagunak seme-alabatariko batzuk artzaintzan dabilza gaur egun, gaztagintzan. Jakina, garaia aldatu egin dira eta tek-

nologia garatzeak abantaila asko ekarri dio egungo baserri munduari. Baina horrek ez du esan gura lana gogotik egin behar ez denik. Hirurak ondotxo dakite zer den hori. Etxeko lanak, ortua, arropa errekan garbitu beharra eta ardiak. Hirurak bat datozen berriro ere jaioko balira ez lirakeela artzain egingo esatean:

F.I.: Artzaintzan hasi gura duenari esango nioke ondo pentsatzeko. Asko exijitzen duen beharra dela. Osasun, kalitate eta berme handiak eskatzen dituzte. Azpiegitura sortzeko ere dirutza behar da. Horretan hasi gura duen gazteak nondik aterako du dirua? Baserriko bazara, baduzu nonbaitetik hasteko aukera. Baina hori eduki ezean, oso gatxa da.

M.T.: Nik ez dut egin izandakoaren damurik. Orduan ez genuen beste irtenbiderik. Horixe zen egin beharrekoa. Gaur egun, gustatu egin behar zaizu.

M.B.: Bai, gustatu egin behar zaizu. Niri gustatu egiten zitzaidan.

F.I.: Gure bizimodua itzela zen. Baina pozik eta konforme gaude. Osasuntsu gaude, eta elkarregaz. Seme-alabek deitu egiten didate batzuetan, “ama, ondo zaude?” galdetzeko. Eta bai, ondo nago. Zortzi seme-alaba ditut.

M.B.: Zortzi seme-alaba?

M.T.: Nik zazpi ditut. Begira zenbat seme-alaba dugun hiruron artean! Hemeretzi! Gaur egun hemeretzi seme-alaba egiteko berrogei bat an-

dre beharko lirateke! (barrez). Eta denek artezak irten digute!

Gizakiak hartu-eman estua izan du ardiagaz, aspaldikoa. Artilea landu eta arropak sortzeari ekin zion bestekoa. Eta, jakina, berdin bildotsa elikagai lez erabiltzeko, zein amaren esnea gazta egiteko baliatzeko. Eta, hala ere, luze eta zabal hedatu da ardia animalia kokoloa den irudipena. Mertxe Totorikaguenak berehala heldu dio horri:

M.T.: Ardia animalia kokoloa dela? Gauza onak non dauden segituan ikusten dute ba... Ardi kokolorik ez dago.

F.I.: Moteltxoak-edo izan daitezke.

M.T.: Moteltxoak? Izan daiteke. Ez dira ahuntzen modukoak. Baina leku onak segituan topatzen dituzte, e?

F.I.: Bestalde, artzain batek ondo

ezagutzen du ardi bakoitza. Ardi bati arran bat ipiniz gero, artzainak arran hori berori ipiniko dio hurrengo udaberrian ere. Bai, ondo ezagutzen ditu ardiak.

Arnedillo, zain

Eta halantxik, apurka-apurka amaierara ailegatzeko hasi da hiru emakume artzainen arteko berbaldua. Baina ez da agur bat, laster arte bat baino. Izan ere, asteburu honetatik aurrera tartetxo bat hartuko dute Axpen jasoriko saria ondo aprobetxatzeko. Gauzak behar diren moduan ospatzeko, Arnedilloko bainuetxera (Errioxa) joango dira egun batzuk pasatzera. Hirurak joango dira, elkarregaz. Esan ere esan dugu hasieran artzain izandakoak direla hirurak, baina lagunak dira beste ezeren gainetik.



Hiru artzainei egindako omenaldia Axpen.

Banan-banan



MIREN BENGOA ALKORTA

Mekoleta (Otxandio)

1933an jaio zen, Ajuria-gerra baserrian, eta gaur egun bizileku duen etxera ezkondu zen gaztetan, Padillarenera. Mekoleta eta Gordobil aldean kokatzen ditu baserriko lanei loturiko hainbat oroitzen. Gogoan du hainbat bider joan behar izaten zuela Mekoletatik Gordobilera, goizeko ordu bata aldera, bildotsik jaio ote zen begitzera.

Lau seme-alabaren ama da eta bere semeetarikoa batek artzaintza lanei eutsi die. Andoni semeak eta Altor bilobak 'Padilla' izeneko gazta ekoizten du Mekoletan bertan. Gaztak Idiazabal Jatorri Izendapena du.



FELISA INTXAURRE LARRAZABAL

Zeanuri

Felisa Intxaurre Larrazabal 1941ean jaio zen, Zeanuriko Altuste baserrian. Gaur egun Zubizabal baserrian bizi da. Bertara ezkonduko da. Gazta freskoa ekoizten zuten garaian, Intxaurrek gogoan du zelan Zeanuriko azokara bajatu eta eramandako guztiak saltzen zituzten. Otxandio aldera ere makina bat buelta egin izan du, etxea handik bost kilometrora du eta. Azpimarratzen duen kontu bat da lagungarria egin zaiola gidatzeko karneta ateratzea.

Bere lanak utzi du segida. Bere oinordekoetarikoa batzuek artzaintzari eutsi diote. Zortzi seme-alabaren ama da.



MERTXE TOTORIKAGUENA JAIIO

Mañaria

Mertxe Totorikaguena Jaio Mañariko Ormaetxe goikoa baserrian jaio zen, 1934an. Izurtzara ezkondu zen, Mañondo baserrira, eta bertan bizi da gaur egun. Akordua duenetik aritu da artzain lanetan. Berak dioenez, gaur egun artzain sartu gura duenari ofizioa gustatu egin behar zaio: "Nekeza da bestela".

Zazpi seme-alabaren ama da eta bere oinordekoek baserriko produktuekin lanean jarraitzen dute. Mañondo baserria da horren erakusgarri. Garatearren ogi entzutetsua bertan ekoizten dute, adibidez. Gaztari dagokionez, etxe horretan bertan ekoizten dute 'Mugarra' izeneko gazta.

25 urte

pertsonen arteko zubiak eraikitzen



FAMILIA BITARTEKARITZAKO ZERBITZUA

BILBOAN, DONOSTIAN, VITORIA-GASTEIZEN ETA TOLOSAN

www.euskadi.eus/familiabitartekaritza



Euskadi, auzolana

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

BERGANTZAN, JUSTIZIA
ETA GAZTARTE POLITIKAREN SALA

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTIZIA Y POLÍTICA SOCIALES

Durango Udala skate pista berria eraikitzen hasi da Arripausuetan

Eremu berria skate, BMX eta 'roller' kirol urbanoetarako egokituko dute. Joan zen astean hasi zituzten lanak



Jorge Varela eta Ane Abanzabalegi udal zinegotziak, eta Daniel Yabar skater eta arkitekto errioxarra.

DURANGO • M.Z. / E.H.

Durango Udala Arripausuetako skate park berria egiteko lanei ekin die. Udaletik jakinarazi duteenez, lanek 159.000 euroko aurrekontua izango dute eta skateboard,

roller eta BMX hiri kiroletako erabiltzaileentzat gune publiko bat berreskuratu eta dinamizatu gura dute.

Joan zen astean egin zuten agerraldia. Udal ordezkariak Daniel

Yabar skater eta arkitekto errioxarra izan zuten lagun. Yabarrek adierazi zuen Arripausuetako skate parkea "zaharkituta" zegoela eta ez zituela erabiltzaileen eskakizunak betetzen. Hori dela eta, proiektua

birmoldatzeko eta berritzeko helburuagaz lan egin du. Yabar bera arduratu da skate pista berriaren diseinuaz, eta herriko erabiltzaileen iritzia kontuan hartuta garatu du proiektua.

Ane Abanzabalegi eta Jorge Varela zinegotziek azken puntu hori nabarmendu gura izan dute. Go-raipatu egin dute erabiltzaileekin batera egindako lana, horrek beharrezan identifikatzen lagundu duelako: "Legegintzaldi hasieran skate parkeko erabiltzaileekin egindako bileretan, eremu hori birmoldatzeko beharrezan adierazi ziguten. Pandemiaren ondorio ekonomikoek lehenago egitea eragotzi digute, baina gobernu talde honetan gure berba betetzen

Eremua ekitaldietarako prestatzeaz gainera, inguru bateragarri egingo dute oinezkoekin

dugu, eta patinatzeko instalazio berriez gozatu ahal izango dugu epe laburrera".

Pista berriak hainbat ezaugarri izango du. Batetik, eremu erabilgarria sortuko dute skate, BMX eta roller modalitateetarako. Bestetik, bowl edo bainuontzi moduko bat eraikiko dute, hirusta formakoa. Hiru maila izango ditu. Eremua kirol ekitaldietarako prestatu gura dute, eta inguruaren erabilera bateragarri egingo dute oinezkoekin.

Barikutik domekara bitartean, 70.000 kilo hondakin erretiratu dituzte Durangon

DURANGO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Nahiz eta San Fausto jaiak ospatu ez, Durango Udala garbiketa dispositibo berezia prestatu du egun hauetarako. Joan den asteburuan, adibidez, 26 langile aritu dira beharrez, kaleak garbitzen. Besteak beste, lau kamioi erabili dituzte Durango kale eta izkinak garbitzeko.

Durango Udala prentsa ohar baten bitartez jakinarazi duenez, aurreko asteburuan 70.000 kilo hondakin erretiratu dituzte eta 160.000 litro ur erabili dituzte kaleak garbitzeko.




Udaleko garbiketa brigada, joan zen asteburuan lanean.

Domekan Durango erreka garbitzera deitu dute

Garbiketa 11:00etan hasiko da, Pinondon. Antolatzaileek egitasmoan parte hartzera deitu dituzte herritarrek

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durango Udala eta herriko elkarteek erreka garbiketa antolatu dute domekarako. 11:00etatik 13:30era izango da garbiketa, Pinondo aldetik hasita. Bilketarako materiala (eskularruak, salabar-doak, pintzak eta zabor-poltsak) antolatzaileek banatuko dute. Herritarrek arropa eta oinetako egokiekin joan beharko dute garbiketara. Herriko hainbat elkarte bat egin du deialdiagaz.



Hondakinak, Mañaria errekan.

anboto

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2021eko urriaren 15a
19. urtea - 866. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Zornotzako Forjarien jauregiari buruzko gorabeherak atal berri bat izan dute asteon. Herrian oposizioan dauden alderdi biek agerraldia egin dute eta adierazi dute gobernu taldeak eraikina botatzea "saihesteko alternatibak eta legezko tresnak" izan dituen arren, ez dituela erabili. Horri guztiari gehitu diote udal gobernu taldeak "hainbat arau urratu" duela. EH Bilduren eta Elkarrekin Podemosen esanetan, "EAJk eta PSE-EEK ez dute "2015eko Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren aurrerapena errespetatu", bertan eraikina "ondare historiko" lez izendatzen zelako eta horren arabera eraikina "ezin zelako bota". Horrez gainera, alderdi biek gaineratu dute, eraikina bota ahal izateko baimena emanda gobernu taldeak Euskal Autonomia Erkidegoko Kultura Ondarea Babesteko Legea "urratu" duela. Oposizio alderdi bien esanetan, udal gobernu taldeak "gurago izan du eraikin historiko hori bertan behera utzi, ondare historiko lez izendatu eta Zornotzako bizilagunen eskura ipini baino".

Urteetako gorabeherak

Oposizio alderdiek adierazi dutenez, Forjarien jauregiko

Zornotzako oposizioak dio udalak Forjako jauregia botatzea saihesteko "legezko tresnak" izan arren, ez dituela erabili

EH Bilduk eta Elkarrekin Podemosek diote "urratu" egin direla HAPOaren aurrerapena eta EAEko Ondarea Babesteko Legea



Ander Uriarte EH Bilduko zinegotzia eta Alba Gutierrez Elkarrekin Podemosekoa.

jabea Vusa eraikuntza enpresa da. Vusak 2017an hasi zituen jauregia botatzeko izapideak, eta iazko urrian Zornotzako Udaleko Hirigintza Sailak "horretarako baimena" eman zion.

Alderdi biek gaineratu dute azken urteotan "eraikin berezi ugari" desagertu direla herritik, "espekulazio hutsagaitik" eta ondarea babesteko "udal politika eskasagaitik".

15 ikastaroko programa, Zornotzako emakumeen ahalduntzea bultzatzeko

Udalak Jabekuntza programa berria aurkeztu du. Zabalik dago ikastaroetan izena emateko epea

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Ainhoa Salterain Udaleko Gizarte Ekintza eta Berdintasun zinegotziak azaldu du ikastaro sorta berriak emakumeen "hausnarketarako eta formakuntzarako bilgune bat" eskaini gura duela. Programak "erreferente" bat izan gura du emakume zornotzarren-

tzat. Programan nabarmentzen diren ikastaroetariko batzuk maitasun loturak, ekonomia feminista edo inteligentzia emozionala dira. Udalaren web orrian, ikastaro guztiei buruzko informazioa eta ordutegiak eskuratu daitezke. Dagoeneko zabalik dago izena emateko epea.



Ainhoa Salterain, Zornotzako Berdintasun eta Gizarte Ekintza zinegotzia.

BETI GERTU!

HEMENDIK

ELORRIORA

Begiratu aukerak gure webgunean:
www.zarateyelexpe.com
Tel.: 946 816 673
Bixente Kapanaga 19, behea 48215, lurreta
construcciones@zarateyelexpe.com



Atxondoko plazan jarritako pankarta.

AHTaren obretako kamioiak Atxondoko herrigunetik ez pasatzeko eskatu dute

Eskaria bete ezean, AHTaren aurkako plataformak herri ekimenetara deituko du

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Atxondoko AHTaren kontrako plataformak jakinarazi duenez, hamabost eguneko epean AHTaren obretako kamioiek Atxondoko herrigunetik pasatzen jarraitzen badute herri ekimenak egiten hasiko dira. "Iazko ikasturtearen amaieran herritarrok egingadako sinadura bilketa kanpainan, kamioien ibilbidea herrigunetik ez izatea eskatu genuen. Udalean aurkeztu genuen mozioan, aho batez onartu zuten prozedura hau. Hala ere, Adif-ek, legez kanpora, kamioiak herrigunetik

bidaltzen jarraitzen du", azaldu dute AHTaren kontrako plataformako kideek prentsa ohar baten bitartez. "Gainera, kamioien eta

"Hamabost eguneko epean ezer aldatzen ez bada, herri ekimenak martxan ipiniko ditugu"

makineria astunen joan-etorriek arriskuan ipintzen gaituzte herritarrok. Eta zerbait gertatu de-

nean eta herritarrok kexatu izan garenean, kamioi gidariak jarrera oldarkorra erakutsi dute, gainera. Besterik ez genuen behar!", gaineratu dute.

Hori horrela, egoerak orain arteko moduan jarraituz gero neurriak hartuko dituztela azaldu dute. "Hamabost eguneko epean ezer aldatzen ez bada, herri ekimenak martxan ipiniko ditugu", jakinarazi dute. Eta herritarrei ekimen horietan parte hartzeko deia egin diete. "Denon artean, indar gehiago izango dugu", adierazi dute.

Orbe eta Ezpeleta garaile Axpen jokaturiko 5 Kirol sarietan

Karmele Gisasolak eta Julen Larreak ezin izan zuten euren lana amaitu, Gisasolak istripua izan zuen eta

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Joan zen eguaztenean, urriak 12, Mendi Goikoa Bekoa 5 Kirol sari berezia jokatu zen Axpeko Mendi Goikoa Bekoa jatetxean. Bertan bikote bi aritu ziren buruz buru. Alde batetik, Karmele Gisasola mallabitarra eta Julen Larrea barakaldarra. Eta, bestetik, Lucia Orbe getxoztarra eta Hodei Ezpeleta eibartarra.

Txapelketa ez zen modu onean amaitu, Karmele Gisasolak istripua izan zuen-eta ingudeagaz,

eta bekokian ebakia egin zuen. Zauriaren ondorioz, eta badaezpada, mallabitarra ospitalera eraman zuten.

Hala ere, Lucia Orbe eta Hodei Ezpeletak osaturiko bikotea aurretik zen istripuaren aurretik, eta euren lana amaitu ahal izan zuten. 40 minutu eta 18 segunduko denbora behar izan zuten horretarako. Beraz, eurak izan ziren Mendi Goikoa Bekoa 5 Kirol sarietan txapela jantzi zutenak.



Orbe, Ezpeleta eta Larrea podiumean.

Elorrioko Udalak %1 igoko ditu zergak eta tasak datorren urtean

EH Bilduk eta EAJk aldaketaren alde bozkatu zuten. Herriaren Eskubideak, kontra



Elorrioko kaleak.

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Joan zen egunean egindako osoko bilkuran, Elorrioko Udalak 2022ra-ko ordenantza fiskalak aldatzeko proposamena onartu zuen, hau da, zergak eta tasak %1 igotzea. Aldaketak EH Bilduren eta EAJren aldeko botoekin egin zuten aurrera. Herriaren Eskubideak, ostera, igoeraren kontra bozkatu zuten. Neurria urtarilaren 1ean sartuko da indarrean.

Bestalde, Elorrioko Udalak terrazen tasa kobratu barik jarraitzea erabaki du. "Pandemia hasi zenetik, hainbat neurri zuzen eta zeharkako hartu dugu ostalaritzari pandemiaren ondorioei aurre egiten laguntzeko. Helburu beragaz jarraituz, datorren urtean ere ez dugu tasa hori aplikatuko", azaldu dute udal arduradunek.

Berrizen, enplegua sortzeko diru-laguntza deialdia zabalik

Berrizko Udalak jakinarazi du 50.000 euroko diru partida bat daukala diru-laguntza honetara bideratzeko

BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Herrian enplegua sortzeko asmoz, Berrizko Udalak diru-laguntza deialdia zabaldu du. Udaletik jakinarazi dutenez, laguntza horiek Berrizen lantokia duten eta herriko langabeak kontratzen dituzten enpresa edo entitateei zuzenduta daude, beti ere behin-behineko kontratu bat mugagabe bihurtzen duten kasuetan edo lanaldia gutxienez %50era zabalitzen dutenetan. Horrez gainera, enpresa ekimen bat gauzatzen duten langabeei diru-laguntzak ematea arautu dutela ere jakinarazi dute.

"Pandemiak eragindako krisiaren ondoren, susperraldi ekonomiko batean gaude eta erakundeok ahalegin bat egiten jarraitu behar dugu enpleguaren


sorrera bultzatzeko. Ezin dugu inor atzean utzi. Ekimen horien bitartez, lana aurkitzen laguntzen dugu", azaldu du Orlan Isoird Berrizko alkateak.

Diru-laguntza jasotzeko, interesdunek abenduaren 31 baino lehenago aurkeztu beharko dute

Eskariak aurkezteko epea

Berrizko Udalak 50.000 euro ipiniko ditu enplegua sortzeko diru-laguntza honetarako, eta interesdunek abenduaren 31 baino lehenago egin beharko dute eskaria. Eskararak Berrizko Udaleko egoitza elektronikoan aurkeztu beharko dira.

Osasun gida



Profesionalik onenak zure zerbitzura!

 **Fisioterapia**
PSE: 119/13

Zainduz

**FISIOTERAPIA
OSTEOPATIA**

Ane Legorburu Munitxa

Trañabarren 13, 4. blokea
behea eskuma
MATIENA-ABADIÑO

944 657 132 - 686 906 374

 **Pedagogia**
PSE: 63/63

UGATZ

**UMEAREN
GARAPENERAKO ZENTROA**

Laguntza goiztiarra,
psikomotrizitatea,
fisioterapia, logopedia

Juan Olazaran, 1 behea
DURANGO
ugatz@hotmail.es
944 668 370 - 615 782 090

 **Fisioterapia**
PSE: 57/16



pablo zubizarreta
fisioterapia & osteopatia

Muruetatorre, 2D
DURANGO

pzubizarreta@gmail.com
946 550 049 - 695 784 963

 **Optometria**
PSE: 162/13

Naia
Zabala
Azumendi
11587 kol. zk.



keinu

- Optometriari teknika aintzindariak
- Kontaktologia • Haurren ikusmena
- Ikusmen terapia • Erreflexu primitiboak
- Syntonic fototerapia • SENA estimulazio neuroauditiboa • Orto-k

Arkaz 3 • 48240 Berriz • Tel.: 94 622 50 99
www.keinuoptometriazentroa.com

 **Podologia**
PSE: 148/13

PAUSOZ PAUSO

Podologia
klinika

Goiatz Murua
kol. zbk.147
Ainhua Elorza
kol.zbk. 238
Nerea Rodriguez
kol. zbk. 329

Kiropodia, onikopatia, alterazio dermatologikoak eta ibilerako alterazioak

Telefona: 946203630
Monago Torre 4, behea 48200 durango

 **Odontologia**
PSE: 145/13



clínica dental hortz klinika
b. unamunzaga e. etxebarria

Dakizuenek, betidanik izan gara adituak esterilizazioan. Orain, inoiz baino gehiago, den-dena prestatu dugu zuen segurtasunerako

{ Muruetatorre, 2C blokea, behea - 48200 Durango }

Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194
454uecdental@gmail.com

 **Odontologia**
PSE: 112/13



J.L. URRETA ZABALO
MEDIKU ESTOMATOLOGOA
IMQ, PADI (umeen hortz programa)
Ortodontzia

Zumalakarregi, 18 - 1. ezk.
48200 DURANGO
Tel.: 946 812 200

 **Estetika**
PSE: 16/09

 **AGIRRE KLINIKA**
MEDIKUNTZA ESTETIKOA

www.medicinaesteticadurango.com

Laser berria:
Tatuajeak behin betiko kentzeko laserra

Obesitatea-zelulitisa, Laserra: depilazioa (prezio bereziak), barizeak... Adinaren kontrako tratamenduak: orbanak, botoxa...

Txatxiena, 6
48200 - DURANGO
Tel.: 946 810 387

 **Psikologia**
PSE: 62/11



JON ARRUBARRENA
PSIKOLOGO KLINIKOA
PORTAERA TERAPIAN MASTERDUNA

- Antsietatea, estresa, fobiak
- Depresioa • Eskola arazoak

UMEAK - NAGUSIAK - BIKOTEAK

Frantzisko Ibarra, 6 DURANGO
jon@psikologo.biz - www.psicologo.biz
Tel.: 946 033 246 - 629 245 728

Otxandioko elizakoa den zilarrezko pelikano eukaristikoa, Madrilgo Prado museoan ikusgai

la hiru mende dituen sagrario bat da. 1776an ekarri zuten hona, Perutik. Mota horretako ale bakarra da Iberiar Penintsulan, eta horrek "ohiz kanpoko objektu" bihurtzen du, Bilboko Arte Sacro Museoko arduradunen esanetan

OTXANDIO • JOSEBA DERTEANO

Madrilgo El Prado Museoak *Tornaviaje. Arte iberoamericano en España* izeneko erakusketa berri bat inauguratu du urrian. Erakusketa hori mendeetan zehar Amerikatik Espainiara eramandako artelanen bilduma bat da eta ikusgai dagoen objektuetariko bat Otxandioko Santa Marina elizaren jabetzakoa da: zilarrezko pelikano eukaristikoa bat, hain zuzen ere.

Azken urteetan, Otxandioko elizan barik Bilboko Arte Sacro museoan egon da, eta handik eraman dute Madrilerara.

Zilarrezko pelikanoak ia metro bateko garaiera du eta sagrario bat da, hau da, aldare gainean ostiaren ontzia egoten den gordetegi funtzioa du. Kasu honetan, pelikanoaren bizkarrean dago gordetegia.

Artelan hori 1776an egin eta ekarri zuten Otxandiora, Perutik. Hego Ameriketara oparo bizitzeko aukera izan zuen Domingo de Zaldibar otxandiarraren oparia izan zen, Bilboko Museoko arduradunen esanetan. Ez da hori Otxandiori egin zion ekarpen bakarra; 1722an, Otxandion ospitale bat eraiki zuten bere aginduz, gaur egun hirugarren adinekoen egoitza dena. Ekarpene horiekiko esker onez, Otxandioko ohorezko alkate izendatu zuten.

Zergaitik pelikano bat?

Zergaitik pelikano bat eta ez beste hegazti bat? Sorburua kristautasuna heldu aurreko kondaira batean dago. Bere habiara heltzean, pelikanoak bere paparra mokokatzen ei zuen odolak irten arte, eta odol horregaz elikatzen zituen bere txitak. Hegazti horrek janaria berrahoratzeke paparrean ematen dituen kolpeen interpretazioa dela uste dute historialariek. Kristautasunak

Azken urteetan, Bilboko Arte Sacron egon da ikusgai, eta handik eraman dute Madrilerara

bere egin zuen tradizio hori, eta pelikanoa Jesukristogaz lotu zuten, "hark ere odola isuri zuelako gizakiak salbatzeko", Bilboko Museoko arduradunek azaldu dutenez.

"Otxandioko elizakoaren moduko pelikano itxurako sagrarioak ohikoak dira Hego Amerikan, baina Iberiar Penintsulan ale honetxer berri baino ez daukagu; horrek ohiz kanpoko objektu bilakatzen du", azaldu dute Bilboko Museokoek. 2022ko otsailaren 13ra arte egongo da ikusgai Madrilan.



Garraiolariek Bilboko Arte Sacro Museoan, pelikano itxurako sagrarioa jasotzen.



Endika Jaiok Mañariko Udala utzi du, hamar urteko ibilbidearen ondoren

MAÑARIA • J.D.

Endika Jaiok Mañariko Udaleko zinegotzi kargua utzi du, arrazoi pertsonalengaitik. Joan zen asteko udalbatzarrean egin zen ofizial erabakia. Legegintzaldi hasieratik horrelaxe erabakita zuela azaldu du, legegintzaldi erdira arte eutsiko ziola, eta orduan ipiniko ziola amaiera hamar urte iraun duen bideari; eta halaxe egin du. Lehenengo zortzi urteetan —legegintzaldi bi— Mañariko alkatea izan zen EH Bildutik; azkenengo bietan, zinegotzi lanetan ibili da.

Bere lekua Jose Ramon Uriarte mañariarrak hartuko duela iragarri zuten azken udalbatzarrean. Uriartek hurrengo udalbatzarrean hartuko du Jaiok zuten zinegotzi kargua.

La Furia rap abeslariaren kontzertua eta gazta azoka besteak beste, Mallabiko urriko ekitaldien artean

Musikari nafarrak 2013tik hona kaleratu dituen hiru diskoetan, mezu aldarrikatzaile eta feministak nagusitzen dira



2022ko otsailean bere laugarren diskoa kaleratzea aurreikusita du La Furiak. **BAGA BIGA**

MALLABIA • J.D.

Urriaren 22tik 24rako asteburua ekitaldiz beterik dator Mallabira, udalaren eta herriko hainbat elkarteren lanari eskerrak. Musika kontzertuak, azokak, kirol jarduerak... denerik egongo da. Musikari dagokionez, Nerea Lorón Díaz, artistikoki La Furia lez ezagutzen den rap abeslari nafarraren kontzertua nabarmendu daiteke. Urriaren 22an eskainiko du kontzertua, 20:00etan, parkean. Mezu aldarrikatzaile eta feministak nagusitzen dira 2013tik hona kaleratu dituen hiru diskoetan. Baga-biga diskoetxetik adierazi dutenez, 2022ko otsailerako aurreikusita dago bere ibilbideko laugarren lana. Nahikari Emakume elkarteak antolatu du kontzertua.

Gazta azoka

Biharamunean, urriaren 23an, gazta azoka egingo dute, 17:00etan hasita, Debarrenako Gaztagileak taldeak antolatuta. Talde horren barruko hiru postu egongo dira gutxienez: Plaentziako ahuntz gazta ekoizle bat, Mutrikuko Idiazabal gazte ekoizle bat eta Mallabiko Axeleku behi gazta. Eurekin batera beste ekoizle bi ere gonbidatu dituzte, biak mallabitarrak: Onandi ardi gazta eta Mañeko gozogintza.

2016an Donostian egin zen World Cheese Awards ekimenak hauspotuta sortu zen Debarrenako Gaztagileak proiektua, sektoreko hainbat ekoizleren artean gazta produktuak sustatzeko helburuz, (egitarau osoa Agenda atalean).

Erabilera anitzeko lokala erabili ahal izateko prezioak onartu dituzte

IZURTZA • J.D.

Izurtzan, behin betiko onarpena eman diote erabilera anitzeko lokalaren erabilera pribatuagaitik ordaindu beharreko prezioa arautzen duen aurtengo ordenantza fiskalari. Prezioak iazko berdina izango dira, ez da igoerarik egon. Asteleheneetik barikura 15 euro izango da prezioa orduko, 50 euro egun erdikoa eta 75 euro egun osokoa. Asteburuetakozko prezioak garestiagoak dira: 20 euro da orduko prezioa, 75 euro egun erdikoa eta 100 euro egun osokoa.

Egun erdiko alokaerak lau ordukoak izango dira gehienez, eta egun osokoak zortzi ordukoak, 08:00etatik 22:00etarako tartean.

KIROL ERROTA GIMNASIOAN GIRO EUSKALDUNA ETA ETXEKOA TOPATUKO DUZU



Gorputza mugimenduan edukitzeak gure bizi-kalitatea hobetzen lagunduko digu, gaur egungo bizitza-ohitura sedentarioek ekar ditzaketen arazoak saihestuz. Kirol Errota gimnasioa Ibaizabal Ikastolaren barruan dago, Durangoko herrigunetik 10 minutu baino gutxiagora oinez, eta aparkaleku pribatua du.

Kirol Errota Gimnasioak ibilbide luzea du Durangoko Tabira auzoan. Ibaizabal Ikastolaren eraikinaren barruan dago, Durangoko Andra Maria basilikatik 800 metrora. Naiara Arenosa ondarroarra da bertako arduraduna eta begiralea. Jarduera fisikoak osasunean duen eragin positiboa kontuan izanik, garrantzitsua da erabiltzaile bakoitzaren neurria egindako eskaintza pertsonalizatua eta gertukoa ematea.

Kirol Errota Gimnasioak nork bere erritmoa jarraitzeko aukera eta askatasuna ematen ditu. Batetik, taldeka zein bakarka parte har daiteke, erabiltzaile bakoitzaren helburuen zein gustuen arabera. "Bakoitzaren berezitasunak eta beharrianak kontuan hartzen ditugu. Adibidez, pertsona batek helburua argi ez duenean, bere egoera aztertzen dugu, eta nahien araberrako ibilbidea markatzen saiatzen

gara, bere ongizatera bideratuta", dio Arenosak. Muskulazio-gelaz eta saunez gain, TRX, Ciclo Indoor (spinning), HIIT, Tono, Body stretch eta GAP ikastaroak daude aukeran egunero. "Eskaintza hau bezeroen nahietara moldatzen saiatzen gara, eta, hori delata, posible da denboran zehar gure eskaintza aldatzea edo egungo eskaintzari kirol-jarduera berriak gehitzea". Esaterako, irailean bertan tenis eta padel kluba abiatu dute, 2.000 m2ko pista-ekipamenduan.

Bestetik, giro lasaia eta familiarra topatuko du erabiltzaileak Kirol Errotan, eta horrek presio-zama arintzen laguntzen du.

Jende-pilaketarik gabeko gunea izan ohi da Kirol Errota Gimnasioa. Bertan, ez da COVID-19aren batere agerraldirik gertatu, esandakoaren ondorio esanguratsu modura. Mugikorretarako aplikazio batekin, gimnasioan denbora

errealean zenbat lagun dauden ikusteko aukera dago online. Gainera, ingurune atseginak osatzen du Kirol Errotaren eskaintza: berdegunea inguruan, aparkaleku pribatua, kafetegia bertan... eta euskara lagun.

Teknologia eta berrikuntza presente daude Kirol Errotan. Oraintxe bertan, diagnostikoa egin eta eskualdeko herritarren artean kirol-praktika areagotzeko estrategia betean da Kirol Errota. Tartean, besteak beste, erabiltzaileen artean kirola elkarrekin egiteko app berritzaile bat plazaratuko dute laster.

Emaizta agerikoa da: "Bizi-ohitura osasungarriak eta aktiboak izateak etorkizunera begira mesede egiteaz aparte, nork bere egunerokoa hobeto eramaten lagunduko digu, familian, lagunartean, eta abarrean". Kirol Errota Gimnasioan horretarako modua jartzen dute, erraz eta eroso.

Anbotoren Lagunek doan dute matrikula

Durangoko preziorik merkeenetakoa dute gimnasioan

Kirol Errota Gimnasioak tarifa apalak ditu, edonorentzat modukoak. Anbotoren Lagunek ez dute matrikula ordaindu behar, gainera. Horretarako, nahikoa da etxean duten txartela erakustea gimnasioan apuntatzera-koan.

Hileroko kuota finko orokorra 39 eurokoa da Kirol Errotan. Hala ere, deskontu zehatzak ere badituzte Ibaizabal Ikastolako kideentzat: familia-bonuak, hiruhileko-

bonuak, egun solteko erabilerara, e.a.

Prezio horien guztien barruan, gimnasioaren erabilerara eta klase guztiak sartzen dira, beste ezer ordaindu behar izan gabe. Hau da, gura duten saioetara joateko aukera dute erabiltzaileek. Baita parking pribatua eta toa aparkatzeko ere.

Gimnasioaren ordutegia 07:00etatik 22:30era bitartekoa da, egunero, asteburuak barne.



KIROL ERROTA

gimnasioa

info@kirolerrota.eus
www.kirolerrota.eus
Intxaurren kalea 54
DURANGO
Tel.: 603 740 550

APARKALEKU PRIBATUA ETA EDOZEIN EKINTZATAN PARTE HARTZEKO AUKERA:

- Gimnasioa
- Sauna
- Entrenamendu funtzionala
- Ciclo Indoor
- Hiit
- Giharren Tonua

Ezagut gaitzazu!



ORDUTEGI ZABALA

Egunero, asteburuak barne
07:00etatik 22:30era

39€

Parkina doan



Parkeko Hotelaren inguruko multzo konplexuak Zaldibarrentzat eta zaldibartarrentzat duen garrantzia azpimarratu du Gerediagak

Ondare kultural legez duen garrantzia nabarmendu dute eta eraikina "zaldibartarren bizitzaren parte" dela azpimarratu

ZALDIBAR • A.M.

Udaberrian, zaldibartar talde bat antolatzen hasi zen Parkeko Hotela deitzen duten eraikina (las Hermanas edo Mojen Etxea lez ere ezaguna) ez botatzea eskatzeko. Ordutik hona, hainbat ekimen egin dute; batzarrak eta mobilizazioak, adibidez. Gerediaga elkarteak ere, bere ekarpena egin guran, txostena helarazi zien eraikinaren jabetza duen Osakidetzari eta Zaldibarko udalean ordezkaritza duten alderdi politikoei. Bertan, eraikina 1882an eraiki zela aipatzen da, besteak beste; bainuetxe lez erabili zen urte luzez, eta garaiko "aisiaren eta bizitza sozialaren gune" bilakatu zen. "Parkeko Hotela multzo konplexu baten parte zen; multzo hura bainuetxeak, hotelak eta parkeak osatzen zuten", dio txostenak. 1920 inguruan, baina, ohiturak aldatu eta Bizkaiko Foru Aldundiari saldu ostean emakumeentzako ospitale psikiatriko bihurtu zuten. Aldatuta dagoen arren, gaur egungo eremua "proiektu hartatik sortu zen".

Txostena Nerea Mujika Gerediaga elkarteak presidentea eta Belen Bengoetxea zuzendaritza batzordeko kideak sinatu dute; biak ala biak Deustuko Unibertsitateko eta EHUko irakasleak ere badira, hurrenez hurren. "Askotan, ondare historiko edo kulturalak zerbait ikusgarria izan behar duela uste da, baina ez da horrela. Kontzeptu horren barruan, beste ezaugarri batzuk ere badaude; adibidez, zein esangura duten leku edo testuinguru horiek. Zaldibarko Parkeko Hotelaren kasuan, garrantzitsua izan daiteke eraikinari eustea, ez eraikinagaitik bakarrik, baita ingurunearen zati bat delako ere, Zaldibarko zati bat delako", azaldu du Bengoetxeak.

Ereduak, Europan

Eraikinaren diseinua Severino Achucarro arkitektoak egin zuen. Bermeoko kasinoa, Banco de Bilbaoren eraikina eta Bidebarrietako udal liburutegia (Bilbo) ere berak diseinatu zituen, eta garaiko arkitekto garrantzitsua dela ere



Parkeko Hoteleko eraikina.

Eraikina 1882an eraiki zuten, eta Severino de Achucarro arkitektoa arduratu zen diseinuz

nabarmendu dute Gerediaga elkarteak. Bainuetxeak ere egiteko, Europako beste bainuetxe batzuen eredu hartu zuen, eta egun ere Europako beste leku batzuetan egin den moduan, eraikinari beste funtzio bat eman dakiokela ere azpimarratu dute. "Ezin da fosil bat

kontserbatu, hori inorentzat ere ez da positiboa. Bere garaian, hotela izatetik ospitala izatera pasatu zen, eta gura izanez gero, beste zerbait izan daiteke gero ere. Botaz gero, betiko galduko da, bai guretzat eta baita ondorengozat ere", diote txostenean.

Sinadura bilketa hasi dute AHTaren lanak direla-eta Abadiñoko Udalari babesa eskatzeko

Herrilko saltoki eta mahai informatiboetan sinatu ahalko da; baita *Change.org* atarian ere

ABADIÑO • A.M.

Abadiñar talde batek sinadura bilketa ipini du martxan AHTaren lanen ondorioz jasaten duten "arisku egoeraren" aurrean herritarrei babesa eskatzeko. Herritarrek eskaera zuzena egin diote Abadiñoko Udalari. "Udalak ez dezala baimendu AHTko kamioien zirkulazioa, Abadiñoko errepideetan sortuko dituzten arrisku-egoera guztiak kontuan hartu eta egoera horiei irtenbide seguru bat

eman arte", adierazi dute. Herritarren esanetan, 2020ko apiriletik "ehunka kamioi" pasatu da euren etxe eta baserri inguruetatik, "batere kontrolik, baimenik eta segurtasun neurrik ipini barik". Sinatzaileen berbetan, Mendiolako sarreratik 60 bat ibilgailu igarotzen dira orduro; Irazolakotik 19 ibilgailu orduro, hau da, 3 minutu eta 9 segundoro bat. Tejeratik 15 ibilgailu orduro, 4 minuturo bat. "Errepide horietan

herritar mordo bat ibiltzen da, oinez, kirola egiten zein ibilgailu propioan, eta ez da inolako segurtasun neurrik hartu", azaldu dute. Horrez gainera, "ez dituzte kontuan hartu Zelaieta-Atxondo errepideko bide zatiaren konpokat eragingo dituen auto-ilarak".

Eskaerak sinatzeko agiriak Abadiñoko saltokietan eta mahai informatiboetan ipiniko dituzte. *Change.org* atarian ere sinatu ahalko da eskaera.

Eguzki panelak ipini dituzte Garaiko frontoian

GARAI • EKAITZ HERRERA

Garaiko Udalak eguzki plakak ipini ditu frontoiko estalkian, plaka horiei eskerrak udal azpiegituratan kontsumitzen den energiaren ia herena modu berriztagarrian ekoizteko. Udalak gaineratu du eguzki panelak moduluka instalatu dituela, etorkizunean energia berriztagarria sortzeko ahalmena handitzen joateko. Izan ere, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan markaturiko helburuen arabera, administrazioek energia berriztagarriak ustiatzeko instalazioak

izan beharko dituzte 2030. urterako, gutxienez kontsumoaren %32 hornitzeko. Lege horrek eraikin publiko guztiei eragiten die. Garaiko kasuan, udaletxeari, kultur etxeari eta pilotalekuari.

Frontoian ipinitako eguzki plakei eskerrak Garaiko Udalak %15eko batez besteko aurrezpena lortu gura du elektrizitate hornidurari lotutako fakturan. Bestalde, instalazio berriari esker, urtean 2.100 kilo karbono dioxido gutxiago isuri gura dute eguratsera.

Seguros Bilbao

RUEDA BILBAO ASEGURUAK
Jabier Rueda

Landako etorbidea, 1 DURANGO

ORDUTEGI BERRIA: Astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 15:30era
Zenbaki hauetan emango diogu lehentasuna bezeroari: 946 20 27 10 / 688 86 11 37

Egunero eskainiko dizugu gure arreta ondorengo helbidean: jrueda@segurosbilbao.com

MAKALLAU saltsan

saltsan
KONFIANTZAN

MAKALLAU SALTSANen bakailaorik onena eta osagai guztiak eskaintzen dizkizugu zure lapikoak arrakasta handia izan dezan: piper txorizeroa, baratxuri gorria, kalitate handiko olio eta.

Bakailao kozinatua ere aurkituko duzu, mota guztietan: pil-pil, bizkaitarra, ajoarrieroa, kroketa, bakailaoz betetako piperrak, etab.

Eta ez galdu Nafarroako kalitate-labeldun kontserbako produktuak: Zainzuriak, orburuak, piperminak, etab.

Enkarguak egiteko edo informaziorako, telefonoz edo whatsapp bidez gugaz kontaktuan jarri: 688 773 205 / 688 734 329

“Goiuria ikastolaren proiektuak bazuen lotura herri identitateagaz”

Goiuria ikastolari buruzko ikerketa azalduko dute domekan, 12:00etan, Askondon



Justo Alberdi eta Markel Onaindia.

URRETA • AITZIBER BASAURI

Justo Alberdik, Markel Onaindiak, Kristina Mardarasek eta Jon Irazabalek osatzen dute Goiuria ikastolaren bidea jasotzeko ikerketaren lantaldea. Goiuria ikastola 1968an sortu zen eta 1972an legezatu zuten.

Zein momentutan dago ikerketa?

Markel Onaindia: Otsailean hasi gi-

nen lanean, eta jada 40 bat lagun elkarrizketatu ditugu; 50 bat elkarrizketa egingo ditugu. Artxibaturiko ikastolako agiri asko galdu edo suntsitu egin ziren, sute batean eta 1983an izandako uholdeetan. Norbanakoek euren kabuz gorderiko agiri batzuk badauden arren, ikastolako artxiborik ez dago. Horregaitik, etxean egon daitezkeen garai

bateko argazki eta agiriak lortzeko dei zabala egin dugu.

Hori dela-eta ikasle eta irakasle izan zirengana jo duzue.

Justo Alberdi: Bai. Eta, adibidez, udalekuetan laguntzaile izan zirengana. Aipatzekoa da ikastolako gurasoek herri mugimenduko gazte militantei proiektuan parte hartzeko aukera eman zirela. 1972an,

ikastola legezatzean, banaka bat kooperatibista ere egin ginen. Herri mugimendu garrantzitsua zegoen orduan.

Giro horren bueltan sortu zen ikastola.

J.A.: Bai. 1966an Durangon sortu zuten, eta gero etorri ziren Iurreta, Otxandio, Berriz, Abadiño, Elorrio eta Zaldibarkoak, 1968. urte bueltan. Iurreta Durangoren menpe zegoen, auzo izaera zuen bakarria zen.

M.O.: Zati batean, Goiuria ikastolaren proiektuak bazuen lotura herri identitateagaz. Iurreta ez zen herria, eta ikastola bat sortzea bazen pauso bat ematea: herri proiektu bat zen.

J. A.: Eskolaurre moduan sortu ziren ikastola guztiak. Bada, ikusten zen hiru urtera Lehen Hezkuntza eskaini beharko zela. Elorrio eta Otxandio euren kabuz moldatu ziren, distantziagaitik. Besteontzat umeak sei urteagaz Durangora joateko bidea zabaldu zen, Gerediaga elkartearen bitartez sorturiko Kiriño Batzordean.

Zein paper jokatu zuen horrek?

J.A.: Herrietako Gerediagako bokalek eta ikastolako ordezlariak osatzen zuten batzordearen barruan, Durangoko ikastolan LH eskaintzea lortu zen. 1970-1971 kurtsoan joan ziren Iurretako lehenengo bost umeak. Artean, eskolaurreak legezatu barik zeu-

den. Goiuria ikastola hiru bider itxi zuten, inspektorearen aginduz. Lehenengo, 1969ko apirilaren 28an. Agiri hori ikastolako lehenengo andereñoari eskerrak lortu genuen.

M.O.: Diktaduraren egoera berezi hartan, hainbat aterpe izan zituen: gurasoen etxeak, sakristia...

Geroago, Maiztegi eskolagaz batu eta Jaurlaritzagaz akordioa lotu zen.

J.A.: Durangoko Ikastolaren proiektua indartzea lortu zen. Hala ere, Iurretan desanexioaren alde herrigintzan jarraitzen genuen, eta bakarrik ikastola bat ezin zela sortu ikusita, Maiztegiagaz batzeko aukerari heldu zitzaion. Jaurlaritzagaz hitzarmena lotu zen. Herrigintzatik ikastola proiektatu gura genuen Iurretan, eta, bide batez, eskola publiko euskaldundu. Hamar urterako, gurasoek osaturiko Jarraipen Batzorde bat sortzea lortu zen, eta urtero-urtero maila bat euskarara berreskuratzea. 1979-1980 izan zen ikastolaren azken ikasturtea.

Zein da proiektuaren helburua?

M.O.: Orduko historia jasotzea eta transmititzea, eta orduan egindako lan handi hori eskertu eta aitortzea. Ikerketaren emaitza maiatz inguruan kaleratuko diren liburuan eta bideoan batuko da. Egoera gatx hartan egindako lanagaitik euskarak pauso gehiago eman ahal izan ditu.

Mallabiko urriko asteburu kulturala

URRIAK 22, barikua

- 16:30 Txokolatada, parkean (Antolatzailea: Guraso elkarte)
- 17:30 Herri kirol erakustaldia, parkean (Antolatzailea: Txondor Herri Kirol taldea)
- 20:00 La Furia: Rap jaia, parkean (Antolatzailea: Nahikari Emakume elkarte)

URRIAK 23, zapatua

- 12:00 Emakumezkoen Gomazko Paleta Elite txapelketa finalaurrekoa, herriko frontoian (Udala)
- 17:00-20:00 Goitibehera jaitsiera umeentzat, Elizosten (Antolatzailea: Udala)
Adina: 6 urtetik aurrera

17:00-20:30 Gazta azoka, parkean (Antolatzailea: Debabarreneko gaztagileak)

22:30 Queen (tributoa), parkean (Antolatzailea: Udala)

URRIAK 24, domeka

- 10:30 Duatloi txikia herri barruko zirkuituan (Antolatzailea: Guraso elkarte)
Ondoren Multikirola, parkean (Antolatzailea: A.D.Mallabia F.T.)
- 12:30 Kimua dantza kolektiboaren genEroa ikuskizuna, herriko frontoian (Antolatzailea: Udala)
- 16:30 Zinema, parkean (Antolatzailea: A.D.Mallabia F.T.)

'Ezer ez ospatzeko' lelopean manifestazioa egin dute Durangon

Urriaren 12an, Hispanitate egunean, gazte andana batu zen Ernaik deituriko ekimenean



Martitzenean egin zuten manifestazioa. MAITANE TOTORIKA

DURANGALDEA • M.ZUAZUBISKAR

Ernaik deituta, martitzenean, Hispanitate egunean, urriak 12, manifestazioa egin zuten Durangon, Ezer ez ospatzeko lelopean.

"Gaur ez dugu ezer ospatzeko. Kontrara, 78ko Erregimenari arrakalak biderkatzeko eguna da gaurkoa, Erregimena eta bere zutabe guztiak eraisteko", adierazi dute ohar bidez gazteek. "Garai nahasi hauetan, Euskal Herriaren eraikuntza helduleku bilakatu behar dugu. Orain inoiz baino gehiago, euskal errepublika sozialista, feminista eta euskaldunerako bidea eraikitzea da gazteon egitekoa", jarraitu dute gazteek. Horrez gainera, Durangoko kaleetan batu ziren gazteek esan dute "bizitzak erdigunean ipintzen dituen independentismoa eraikitzen" jarraituko dutela.

Politikan

Jesica Ruiz
PSE-EE



TADUko aparkalekua

2019ko aurrekontu parte hartzaileetan laugarren postuan hautatutako proiektua: 120 aparkaleku berri Taduko aparkalekuan sortzea. Momentu horretan zehaztutako kostua 162.000 eurokoa izan zen.

Hamazortzi hilabeteren ondoren, lanak amaitzen ari dira, baina hasierako desberdintasun handi batekin, benetako kostua 346.000 eurokoa izan dela. Kontuan izan behar dugu prezio honetan dagoela sarrera kontrol sistema jartzea. Galdera bat datorkit burura. 2019ko aurrekontuetan benetako prezioa jarri izan balitz, bozkatueneren artean egongo litzateke? Tamaletz, galdera honen erantzuna ez dugu inoiz jakingo.

Hamazortzi hilabeteren ondoren, TADUko lanak amaitzen ari dira, baina hasierako desberdintasun handi batekin

Gainera, disuasio-aparkaleku honen ondoan dagoen Landako zonalde guztia onartutako eta lizitazioan dagoen TAO-n sartzen da, gune berri bat sortuz. Suposatuz, bertako kotxeak (egoiliarren txartela ateratzen ez dutenek batez ere) TADUn aparkatzen saiatuko direla. Eta hori ez gertatzeko geratzen den aukera bakarra ordainpeko aparkalekua izatea da. Gobernu taldeak adierazi duen bezala, prezioa sinbolikoa izango litzateke.

Azkenengo kostua eta obrak bukatzen ari dira, bai, orain jakitea falta zaigun gauza bakarria prezio sinboliko horren zenbatekoa da.

Durungaldea asteen

Iurretan, ikasteko gune bat izango dute datorren urte hasieran

Iurreta | Garai bateko IMI izeneko lokala ikasteko gune bihurtu gura du Iurretako Udalak, eta harako lanak lizitatu ditu, 43.768 eurotan. Lokala 2022ko urte hasieran zabaltzea aurreikusi dute. Ikasgela berriak bosna edo seina laguntzako bost ikasmahai izango ditu, eta ikasgune bakoitzak hargune elektrikoa izango du.

Landa eremuko emakumeentzat gune iraunkor bat sortu gura dute Abadiñon

Abadiño | Abadiñoko Emakumeen Jabekuntza Eskolatik dozena bat tailer eta prestakuntza-jardunaldi antolatu dituzte. Tartean, landa eremuko emakumeentzat gune iraunkor bat sortzeko jardunaldiak. Hiru jardunaldi izango dira guztira, eta lehenengoa urriaren 20an izango da.

Durungaldeko Mankomunitateak Zaindu zerbitzuak indartuko ditu

Durungaldea | Bulego iraunkor bat ipinita, Durungaldeko Mankomunitateak Zaindu zerbitzuak indartuko ditu mendeko senideak zaintzen dituzten pertsonen laguntzeko. Hileko lehenengo, bigarren eta hirugarren martitzenetan, Elorrión, Abadiñon eta Berrizen eskainiko dituzte zerbitzuak hurrenez hurren. Iurretan eta Zaldibarren, hileko laugarren asteburuan izango dira.



Zaldibarko Udalak eguzki panelak eta isolamendu termikoa ipini ditu eskolan

Zaldibar | Zaldibarko Udalak 212.979, 72 euroko inbertsioa egin du eskola eraikinetan eguzki panelak eta isolamendu termikoa ipintzeko. Besteak beste, "berotegi efektuko gasen emisioak murriztea eta energia fakturaren gastua jaitea" gura du udalak.

1. eta 2. zikloetako eraikinetan, eguzki energia fotovoltaikoko 188 modulu ipini dituzte. Inbertsioa 212.979, 72 eurokoa izan dela azaldu du udalak; hala ere, 124.422 euro bueltatu dizkiote diru laguntzetan.

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak: Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (taratek barne).



Durungaldean gremioekin, zerikusia duen negoziarik baduzu,

JARRI EZAZU ZURE IRAGARKIA ANBOTON

Informazio gehiago **94 621 79 02** telefono zenbakian






DIFERENTZIAK

Topatu itzazu zazpi diferentziak.






PUZZLEA

Zati hauetatik guztietatik denak ez dira egokiak. Zeintzuk bai?



FAMILIA ARGAZKIA

Beheko txakurretatik zeintzuk agertzen dira goiko familia argazkian?





'Amua'

ANTZERKIA **BERRIZ** :: Urriaren 16an

Hiru artista durangarren lana, Arte eta Historia Museoan

"Askatasunaren utopia azkenengotan dela esan zaigu hainbatean, baina maitasunaren izenean noraino heldu gaitezke?". Halaxe dio Axut antzerki taldeak 'Amua' obra aurkezteko landuriko sinopsian. Anak bere gaztaroko maitale ohi bi gonbidatu ditu Iratiko etxola batera. Azken asteburu bat, izan zirenaren eta amestu zutenaren

izenean. Horixe du abiapuntu gaur 19:00etan Berrizko Kultur Etxean taularatuko duten obrak.

Asko maitatu dute elkar eta maite dute elkar, baina zaila da intimitasun hori partekatzea. Esklusibotasuna, erromantizismoa, egoa, jabetza, ohitura, kultura, eta hezkuntza alde batera uztea, aste-buru bakar batentzat bada ere.

Urriaren 15ean

ABADIÑO ipuin kontalaria
'Vamos a contar mentiras' (Ines Bengoa), 19:00etan, Txanporta kultur etxean. 16 urtetik gorakoentzat.

BERRIZ antzerkia
'Lázaro de Tormes' (Pedras de Cartón), 17:00etan, Berrizko Kultur Etxean.

DURANGO antzerkia
'Imbebible' (Txintxaun Kolektiboa), 20:00etan, San Agustin kulturgunean.

DURANGO bertsoak
Bertso jaialdia: Aitor Mendiluze, Onintza Enbeita, Miren Amuriza, Sustrai Colina, Alaia Martin eta Unai Iturriaga, 22:00etan, Landako Gunean. Gai-jartzailea: Ainhoa Urien.

DURANGO dokumentala
'Suharra', 19:00etan, Zugaza Zinemaren. Gogoan Zezenzale elkartearen eskutik.

ZORNOTZA antzerkia
'Napoleón o el complejo de épico' (Chapitó), 20:00etan, Zornotza Aretoan.

Urriaren 16an

DURANGO pilota
37. Zesta-punta Txapelketako finala, 18:00etan, Ezkurdi Jai Alain.

DURANGO dantza
'Alma de bohemio' (La Porteña Tango), 20:00etan, Landako Gunean.
Umeentzako ikuskizuna, 17:00etan, San Fauston.

GARAI antzerkia
'Amor oscuro' (Viridiana), 19:00etan, Elizabarrin.

MAÑARIA bisita gidatua
Angurreta harrobian bisita gidatua eta 4kote taldearen kontzertua, 11:00etan, plazatik irtenda. Oinez igoko da harrobira.

IURRETA erakusketa
'Auzo eskolei esker hezkuntza gure eskure' erakusketa, 17:00etatik 19:00etara, Askondon.

Urriaren 17an

DURANGO mendi ibilaldia
Mugarri Eguna, 08:30ean, Andra Mariko elizpetik irtenda. Alpino Tabira Mendizale taldeak antolatuta.

DURANGO antzerkia
'Lázaro de Tormes' (Pedras de Cartón), 18:00etan, San Agustin kulturgunean.

DURANGO azoka
Nekazaritza azoka, 11:00etatik 14:00etara, Andra Mariko elizpean.
Umeentzako margo eta marrazki lehiaketaren sari banaketa, 12:00etan, San Fausto auzoan.

DURANGO dantzak
Euskal Dantzak, 18:00etan, Landako Gunean. Kriskitin dantza taldearen eskutik.

DURANGO musika
Tabira Musika Bandaren kontzertua, 13:00etan, Landako Gunean.
'Durango Uria' pintura lehiaketako sari banaketa, 13:00etan, Ezkurdin.

IURRETA erakusketa
'Auzo eskolei esker hezkuntza gure eskure' erakusketa, 11:00etatik 14:00etara, Askondon
Berbaldia, 12:00etan.
Herri kirolak, 09:00etatik 15:00etara.

Urriaren 19an

ABADIÑO irakurketa
Irakurketa kluba, 19:00etan, Errota kultur etxean. Mikel Antzak dinamizatuta.

Urriaren 21ean

DURANGO antzerkia
'Kasilda, bukatzen ez den sua' (Goitibera), 19:00etan, San Agustin kulturgunean.

ZORNOTZA musika
Four Friends, 20:00etan, Zelaiaetako kontzertu gelan.

Urriaren 22an

ELORRIO dantza
'Bat' (Dantzaz konpainia), 19:00etan, Arriola antzokian.

DURANGO film laburrak
'Los excursionistas' eta 'El Paraguas' film laburrak, 20:00etan, San Agustin kulturgunean.

MALLABIA herri kirola
Txokolatada, 16:30ean
Herri kirolak, 17:30ean, parkean. Txondor elkarte.
La Furia: Rap jaia, 20:00etan, parkean. Nahikari elkarte.

ZALDIBAR berbaldia
Juan de Aranoaren lanari buruzko berbaldia, 17:00etan, liburutegi zaharrean.

ZORNOTZA dantza
'Gorpuztu' (Eva Guerreroren dantza konpainia), 20:00etan, Zornotza Aretoan.

Urriaren 22ra bitartean

ELORRIO erakusketa
'Hizkuntza indigenak amalurra zaintzen', Iturri kultur etxean.

Urriaren zehar

DURANGO erakusketa
'DGO2021' (Txelu Angoitia) + 'Hiru dokumentu akelarre batentzat' (Ander Berrojalbiz) + 'Gogoratzen' (Amaia Lejarreta), Arte eta Historia Museoan.

Zinema

:: **Abadiño ERROTA**

• **Oltxiak**
domeka 17: 17:00

:: **Durango ZUGAZA**

• **El buen patrón**
barikua 15: 19:30/22:00
zapatua 16: 19:30/22:00
domeka 17: 19:30
astelehena 18: 17:45/20:15
martitzena 19: 17:45/20:15
eguztzena 20: 17:45/20:15

• **Venom: Habrá matanza**
barikua 15: 19:30/22:00
zapatua 16: 17:30/19:45/22:00
domeka 17: 17:15/ 19:45
astelehena 18: 18:00/20:15
martitzena 19: 18:00/20:15
eguztzena 20: 18:00/20:15

• **Un segundo**
barikua 15: 22:00
zapatua 16: 19:45/22:00
domeka 17: 19:45
astelehena 18: 18:00/20:15
martitzena 19: 18:00/20:15

• **Maixabel**
eguztzena 20: 17:45/ 20:15
eguztzena 21: 20:15

• **Dos colegas y la gran bestia**
zapatua 16: 17:30
domeka 17: 12:00/17:15

• **La Familia Adams 2**
zapatua 16: 17:00
domeka 17: 12:00/17:00

• **Mr Link**
domeka 17: 12:00

• **Oasis: Supersonic**
eguztzena 21: 20:00

:: **Elorrio ARRIOLA**


• **Las cosas que decimos, las cosas que hacemos**
zapatua 16: 20:00
domeka 17: 20:00
astelehena 18: 20:00

• **La Patrulla Canina**
domeka 17: 17:00

:: **Zornotza ARETOA**

• **Cry Macho**
zapatua 16: 20:00
domeka 17: 20:00
astelehena 18: 20:00

• **Peter Rabbit 2: A la fuga**
zapatua 16: 17:00
domeka 17: 17:00



“Munduan eta Euskal Herrian
zer pasatzen den euskaraz jaso
ahal izateko”

Omar Diop

Aktorea

berria

zuk badakizulako

Egin

BERRIAlaguna

LITERATURA • A.M.

Xabier Olaso idazle otxandiarrak etenik barik jarraitzen du lanean. Oraintsu, 'Hanka, moko eta buztan (animaliekin dantzan)' liburua kaleratu du. Birritan irabazi du Euskadi saria, 'Pupuan trapua' eta 'Tximeletrak' lanekin.

'Hanka, moko eta buztan (animaliekin dantzan)' publikatu duzu oraintsu. Zeri buruzkoa da liburua?

Liburua hizkuntz pieza laburrez osaturiko puzzle bat da, zelanbait esateko. Animalien gaia ardatz hartuta, mikroliteraturako edo genero laburreko testuak ondu ditut, askotarikoak. Liburu erakargarri eta jostagarri bat egitea izan da nire helburua, hizkuntzagaz jolasteko eta ondo pasatzeko aukera emango duena.

Liburu erakargarri eta jostagarri bat egitea izan da nire helburua, hizkuntzarekin jolasteko eta ondo pasatzeko

Zer aurkituko du irakurleak?

Liburua jolas-kutxa moduko bat da. Irakurleak ipuin laburrak aurkituko ditu, "ipuininiak" deitu diet, eta alegiak; poemak ere badira hainbat, forma ezberdinetakoak. Batzuk, adibidez, liburua ispiluaren aurrean ipinita baino ezin dira irakurri; beste poemaren bat musikatze modukoa da; bestalde, badago behetik gora irakurtzen den poemarik ere, edo akrostiko modura irakurri daitekeen aleren bat, edo zuhaitz itxura duena...

Marrazkiak liburuaren luze-zabalean daude, han-hemenka, irudimen handiz josita

Eta berba-jolasekin jarraituta, bestalde, badira era eta forma askotako igarkizunak eta aho-korapiloak, eta haikuak, eta asmatu-rikotsotitzak, eta animalario bat, animalia bitxiz osatua: patxitxipot, txuntxurrunsaurio, garbirifayri... Liburuak benetako bizia hartuko du irakurleak eskuetan hartzean. Orduantxe hasiko da "animaliekin dantzan".

Sandra Garayoak egin ditu irudiak. Zelan konpondu zara beragaz behar?

Sandra Garayoaren ilustrazioak ikusgarriak dira, kolore ederrez hornitutakoak. Marrazkiak liburuaren luze-zabalean daude, han-hemenka, irudimen handiz josita. Liburua janzteko garaian, ezin-

"Aurrekoz atzera zein atzekoz aurrera irakurri daitekeen liburua aurkituko du irakurleak"

Xabier Olaso idazle otxandiarrak 'Hanka, moko eta buztan (animaliekin dantzan)' liburua kaleratu du oraintsu. "Jolas-kutxa" legez identifikatu du bere azken lana, "liburu ezberdin bat"; Sandra Garayoak egin ditu liburuko marrazkiak



Xabier Olaso Bengoa
Idazlea
OTXANDIO | 1964

bestekoa izan da bere ekarpena. Nire ustez, berba eta irudia sintonia egokian ageri dira liburuan, eta pozarren nago bion artean lorturiko emaitzagaz. Testuak jostagarriak dira batez ere, eta Garayoaren marrazkiak, beste horrenbeste.

Hainbat generotan, eta helduentzako zein haurrentzako liburuak idatzi dituzu. Zer dauka genero bakoitzak erakartzen zaituena? Zeinetan ibiltzen zara gusturen?

Genero bakoitzak bere leku kutuna du nire barruan. Bakoitza une eta beharrez ezberdinei lotzen zaie. Bakoitzak baldintza eta egokiera ezberdinak eskatzen ditu. Azken urteotan, haur eta gazte literaturari lotu naitzaio gehienbat, eta arlo horretakoak izan dira atara ditudan azken liburuak. Atseginez nabil haur eta gazteentzako liburuak idazten. Bietarik bat aukeratu beharko banu, gaur-gaurkoz, arlo hori aukeratu nuke: haurrena. Haurrentzat idazten duenak haurren psikologia, jorkaerak eta interesguneak ezagutu behar ditu, eta gertutik bizi, eta ulertu. Haur literaturako egileak erronka handia du sortzen duen gauza bakoitzagaz, ondo zaindu behar du dena, hizkuntza molde egokiz eman behar du, irakurle txikiari emozioa sorrarazi behar dio eta. Ttak! piztu behar du haurraren interesa; hau da, haurra seduzitu egin behar du. Eta ez da erraza haurrentzat ondo idaztea,

baina, nire kasuan, gozamen handia da.

Zer esango zenioke liburua irakurri ala ez zalantza duenari?

Liburu ezberdin bat aurkituko duela esango nioke. Aurrekoz atzera zein atzekoz aurrera irakurri daitekeen liburu bat aurkituko duela. Sandra Garayoa ilustratzaileak egindako marrazki eder-ederak ere aurkituko ditu. Benetan ikustekoak dira. Azken batean,

Euskaragaz eta berba-jokoekin bete-betean jolasteko aukera ematen duen liburua da

irakurketa dinamizatzeko aukera ematen duen liburua da gurea, euskaragaz eta berba-jokoekin bete-betean jolasteko aukera ematen duena. Animaliekin dantzan egin gura duenak irakurri dezala liburua.

Baduzu beste proiekturik buruan? Bazabiltza beste ezer idazten unehonetan?

Gauza pare bat dut esku artean. Laster argitaratu duten ipuin liburu bati azken zuzenketak egiten nabil, azken birpasa ematen. Bestalde, jatorriz gaztelaniaz idatzita dagoen haur liburu bat euskaratzen nabil. Horretan nabil, ba, tipi-tapa...

EROSI Iurretan ETA ZAINDU herriko altxorra!

Kanpainaren oinarriak:

- 3.000 txartel egongo dira eskuragarri HAZ bulegoan (Bidebarrieta, 5).
- Txartelak bi atal izango ditu: merkataritza eta ostalaritza.
- Atal bakoitzeko bi zigilu lortu beharko dira eta hauek Iurretako merkataritza eta ostalaritza egindako erosketak bakoitzarekin lortuko dira.
- Zigilu bakoitza establezimendu desberdinetako izan beharko da.
- 100€-ko 15 deskontu bale zozketatuko dira.
- Zozketan parte hartzeko, txartela zigiluekin HAZ-ean egongo den postontzian sartu beharko da urrian zehar.
- Zozketa 2021eko azaroaren 4an egingo da.

Informazio gehiago eta parte-hartzaileak: <http://www.dendakbai.eus>

1.500€ SARITAN

Iurretako Udala **Dendak Bai**



Pedras de Cartón antzerki konpainia.

Tormesko itsumutilaren bertsio berria ikusi ahalko da asteburuan Berrizko Kultur Etxean

Barikuan izango da emanaldia, 17:00etan. Pedras de Cartón konpainia galiziarrena da obraren ardura

ANTZERKIGINTZA • A.M.

Pedras de Cartón antzerki konpainia galiziarrek Tormesko itsumutilaren bertsio berria dakar. Berrirakurketa berria maskarekin eta berbarik bakoa egin dute, lehenengoz. Espainiako literaturgintza modernoaren lehenengo eleberrietarikotzat hartzen da *Tormesko itsumutila*; Salamanca eta Toledo inguruetara darama ikuslea; gizarte dekadentea erakusten du, inguru dekadente batean, maila sozial baxuko pertsonekin, eta inguratzen dituzten pobreziaz erakusten ditu horiek. XVIII. mendean arrakasta handiaz sortu zen pikarokeria

Haur eta gazteentzako antzerkigintzan esperientzia handiko konpainia da

Familia osoagaz gozatzeko ikuskizuna dela nabarmendu dute antzerki konpainiak

lez ezagutzen den generoaren sortzailatzat hartzen da nobela, eta, antzerkian ere, protagonistak epistola lez erakutsiko du bere istorioa. Familia osoagaz gozatzeko ikuskizuna dela nabarmendu dute.

Galiziatik mundura

Haurrentzako eta gazteentzako antzerkigintzan esperientzia handiko kideek osatzen dute Pedras de Cartón konpainia. Lan honetan, Laura Sarasola eta Pablo Sanchez arduratu dira obra zuzentzeaz, eta Juan Rodríguez dramaturgiagaz. Rodríguezek aktore lanak ere egiten ditu eta Xosé Manuel Esperantek eta Xosé Vilarellek ere igoko dutea oholta gainera beragaz batera.

Altubek eta Sarriugartek Ortuellan abestuko dute

Bizkaiko Bertsolari Txapelketako hirugarren kanporaketa jokatu da zapatuan, Ortuellan; 17:00etan hasiko da

BERTSOLARITZA • A.M.

Durungaldeko bertsolari bi lehiatuko dira Bizkaiko Bertsolari Txapelketako hirugarren kanporaketan: Txaber Altube abadiñarra eta Garikoitz Sarriugarte zaldibartarra; Asier Alcedogaz, Julen Ibaranguoitiagaz, Mikel Retolazagaz eta Peru Vidalegaz batera abestuko dute. Zapatuan izango da saioa, 17:00etan, Ortuellako Gorbea aretoan. Idoia Anzordia arduratuko da gaiak jartzeaz. Saioko irabazlea zuzenean sail-

katuko da finalurrekoetara, eta gainerakoek puntuazioaren arabera edukiko dute horretarako aukera.

Pagonabarraga aurrera

Gorka Pagonabarraga durangarrak Igorreko kanporaketa irabazi eta finalurrekoetarako txartela lortu du asteburuan. Bestalde, Nafarroako Bertsolari Txapelketan Erika Lagomak hirugarren postua lortu zuen Tafallako saioan.



Gorka Pagonabarraga Igorreko kanporaketan.

Gai librean

Egonean egon

Lantokitik kotxera bidean 1'5eko abiadura jarri duzu lagunak bidali dizun audio mezua. Etxerako bidaian amari deitzeko aprobetxatu duzu, behin etxera helduta erlojuaren orratzak kokotera itsatsita edukiko dituzulako.

Bazkaria irunsi eta eztarrian behera doala atera zara berriro etxetik, pausu arinez, "barkatu, 10 minutu beranduago noa". Ilundu du egunak eta berriro iritsi zara etxera, dutxatu, afaldu eta biharkoa prestatu. Kontu batzuk kontatu pisuki-deekin eta ohera. Iratzargailua aktibatu: "alarmak 7 ordu eta 17 minutu barru joko du".

Egun bi jai eduki ditut eta, behingoz, egun bi jai hartu ditut. Neure buruarekin egin dut lan, neure gorputza zaindu dut. Begiratu egin diot, eskatu didana ematen saiatu naiz. Burua hustu dut, erlojua ahaztu dut eta etxaurreko zuhaitzei begiratu diet. Gorri biziko dituzte



Ainhoa Urien Telletxe
Idazlea

orbel bihurtzearen diren hostoak. Prozesu geldia horretaz ez naiz ohartu azken asteetan. Izarak aldatu ditut eta eguzki epeletan nola lehortzen diren begira egon naiz. Musika entzun dut, irakurri egin dut, egonean egon naiz.

Hiperestimulaziotik ihes egin dut bi egunez, dena esate aldera, horretarako pribilegioa ere badaukadalako. Ia inorekin kontaktu errealek edota birtualik izan barik pasa ditut bi egun. Aspertuta egotearen ederra dastatu dut, batere gogaitu gabe.

Gizarte likidoaren kontzeptua ez da berria, baina bai gero eta baliagarriagoa. Azkar bizi gara, azkarregi. Zenbat izen esaten ditut egunero? Zenbat elkarrizketa diferente ditut aldi berean? Zenbat plan kabitzen dira nire eguneko? Egunak 25 ordu beharko litzukeela pentsatzera iristeraino.

Euskal Herrian, historikoki eta baserriari lotuta, ez da baloratu egonean

egotea, denbora pasatzen uztea. Baserrian lana egin behar da, beti dago zeregina. Hala ere, nago, ez ote den tenpo hori behar duguna: erlojuari beharrean naturaren martxari erreparatzea, harekin bat joatea. Lana bai, egonean egotea ere bai. Egonariak dakar sortzea, dakar beste era batera eta beste zergati batzuentzat ekitea.

Etengabe lana egin beharra, batetik; eta denborari etengabe zuku atera beharra, bestetik. Baserriaren tradizioak eta hiriaren inposizioak leihotik begira geratzea zer den ahaztuarazi digute. Virginia Woolfek esan zuen moduan: "egonean gaudenak igeri goaz adaxkekin batera ur-lasterrean; hosto hilekin nahas-mahas beldian, arduragabe eta ezaxola, eta gauza gara, menturaz urteetan aurreneko aldiz ingurura begiratzeko, gora begiratzeko; esaterako, zerura".

Mauri Imazek azkenekoz igo zuen Urkiola mendatea, astelehenean: "Orain gizartearen eta politikarien txanda da"

Nekatuta, baina pozik amaitu du urtebete iraun duen erronka. 365 bider igo du Urkiola bizikletan, hezur-muina ematearen garrantzia lau haizetara zabaltzeko

TOURKIOLA • JOSEBA DERTEANO

Nekea, poza, emozioa, esker ona... Barruan pilatzen zitzaizkion sentimenduek gainezka egin zizkionten Mauri Imazi astelehenean, Urkiolako harria azkenekoz ikutu zuenean. Dena adierazi gura zuen, baina ez zitzaizkion berbak irteten. Bere gertukoei emandako besarkada luze eta hunkigarriekin askatu zuen tentsioa behin baino gehiagotan. Baina, azkenean, omenaldi ekitaldia amaitu —aureskua dantzatu zioten, besteak beste— eta sentimenduen itsaskirria baretu zenean, euretariko bat nagusitu zitzaion besteen gainera: aginduriko erronka bete duenaren lasaitasuna eta betetasuna.

Iazko urritik hona, Imaz durangarrak egunero igo du bizikletan Urkiola mendatea, *Tourkiola* 365 ekimenaren barruan. Igoera bakoitzean, bere pisuarena eta bizikletarena baino zama handiagoa eramanean du bizkar gainean: hezur-muinaren donazioaren garrantzia lau haizetara zabaltzea zen bere helburu nagusia, eta behar zuten haiei ezin zien hutsik egin. "Momentu batzuetan gogorra izan da, baina oso pozik nago erronka amaitu izanaz", adierazi du Imazek.

Hedadura handia

Hasieran inor gutxik aurreikusi zezakeen hedadura hartu du ekimenak azkeneko. Hedabide handi askoren arreta erakarri du, eta, horregaz batera, gizartearena. Esaterako, azkeneko igoera biak, joan zen domekakoa eta astelehenekoa, 30-40 bat laguneko tropelak babestuta egin zituen, eta izen

ezagunak zeuden tartean. Hasieran berea bakarrik zen mezua hainbeste zabaldu izana da Imaz gehien pozten duena. "Asebetegarria da, bai. Baina honek aurrera jarraitzea espero dut. Nik egin dut neurea, eta orain gizartearen eta politikarien txanda da; eurek hartu behar dute erreleboa", adierazi du.

Eskaria udaletxean

Imazen mezua Durangoko udal-etxera ere heldu da. Irail amaierako udalbatzarrean, eskari bat erregistratu zuen: herrian hezur-muina emateko gune bat ipini dezan es-

"Momentu batzuetan gogorra izan da, baina oso pozik nago erronka amaitu izanaz"

Mauri Imazek 30 bat laguneko tropelak babestuta egin zuen azken igoera,

katu zion Osasun Sailari. Zinegotzi guztiak bat etorri ziren eskariagaz, eta mozioak aurrera egin zuen, aho batez. Udalbatzan komentaturikoaren arabera, anbulatorio zaharra leku aproposa litzateke gune hori instalatzeko.

Horrez gainera, joan zen domekan Durangoko Udalak ekitaldi bat egin zuen San Agustin kultur-gunean, Imaz omentzeko.



Omenaldi ekitaldiko ospakizunen barruan, Imazek 365 zenbakidun kandelak amatatu zituen.



Mauri Imaz eta ekimenean lagundu dioten lagunak, aureskua dantzatu zieten momentuan.

Peter-en oroimenezko pilota txapelketako finalerdiak eta finalak jokoan, Durangon

PILOTA • J.D.

Lehenengo finalerdiak gaur jokatuko dituzte, 19:30ean, Ezkurdikoko pilotalekuan. Gazteetan, Murillok eta E. Etxebarriak Etxebarriaren eta Alvarezen aurka jokatuko dute. Nagusietan, Karrera eta Bilbao A. Etxebarriaren eta Morgaetxebarriaren kontra arituko dira.

Bigarren finalerdiak urriaren 22an dira, 19:30ean. Gazteetako bikote biak Lopez-Larrañaga eta Kareaga-Alonso dira; Nagusietakoak, Agirreamalloa-Madariaga eta Ormaetxea-Ibarzola. Finalak urriaren 29an jokatuko dituzte.



Aurreko aldi bateko irabazleen eta finalistaren familia argazkia.

Durangoko Kulturalak onenen parean hasi du denboraldia

Bigarren tokian dago Hirugarren Mailako sailkapenean. Talde durangarra bigarren dago Alaves Bren atzetik

FUTBOLA • J.D.

Hirugarren Mailan zortzi jardunaldi joan direnean, Durangoko Kulturalak goi-goian jarraitzen du sailkapenean: bigarren dago, Alaves Bren atzetik. Klubak fitxaketa asko egin du udan, iaz pasatutako estuasunak ahaztu eta aurten gora begira egoteko, eta, oraingoz, plana bide onetik doa. Kulturalak partidu bakarra galdu du orain arte. Gainerakoan, bost irabazi eta

bi berdindu ditu. Durangarren bolada ona lan defentsiboan oinarritzen da. Orain arteko zortzi partiduetan lau gol baino ez ditu jaso. Estatistika horretan, Kulturala da Hirugarren Mailako talderik onena.

Asteburuan, Uritarra taldea bisitatuko du. Uritarra azken sailkatua da, jokatutako zortzi partiduetatik zazpi galdu ditu, eta, beraz, irabazteko moduko partidua da.



Aser Arza erdian, bere lagunekin inguratuta.

Aser Arza Hiru Haundiakoko podiumean, 11 ordu eta 36 minutuko denboragaz

Durangoko korrikalaria bigarren sailkatu da 101 kilometroko mendi lasterketan

MENDI LASTERKETA • M.ZUAZUBISKAR

Aser Arza Hernandez durangarrak handia egin du asteburuan. Hiru Haundiak 101 kilometroko mendi lasterketan bigarren postua eskuratu du, 11 ordu eta 36 minutuko denboragaz. Durangarrak bere helburua bete duela esan du: "12 ordutik jaista zen neure asmoa, eta lortu dut. Pozik nago lortutakoagaz". Bere helburua erraz betetzeaz gainera, Hiru Haundiak lasterketako podiuma zapaldu du, bigarren helmugaratuta. "Dena ondo joanda lasterketa lehenengo bosten artean amaitu nezakeela uste

nuen, baina podiuma beste mundu bat da. Podium honetan egoitea oso polita izan da niretzat", aitortu du.

Arzak bigarren ere ipini du dortsala Hiru Haundiak proban. 2010ean parte hartu zuen lasterketan lehenengoz, "lagun batek burua berotuta". Orduan, 16 ordu eta 40 minutuan egin zituten 101 kilometroak. Horren ostean, mendia alde batera utzi zuen. "Baina pandemiaren aurretik, sei bat hilabete lehenago, ultrak prestatzen hasi nintzen eta Hiru Haundiak proba egitea bururatu zitzaidan pandemia sasoiaren".

Bere buruari erronka ipini, eta erraz bete du durangarrak.

Esker oneko berbak

Lasterketa osoan zehar familiaritatekoak eta lagunak ondoan izan ditu eta denei oso eskertuta dago. "Aitziber neska-laguna eta familiakoak ondoan izan nituen, eta eskerrak eman gura dizkiet. Baina, batez ere, lagunak esker-tu gura ditut. Mikelegaz, Perugaz, Ekaitzegaz eta Edortagaz ibilbidean bat egitea eta eurekin batera kilometro batzuk egitea itzela izan zen, psikologikoki izugarria izan zen", adierazi du.

Zornotza STk garaipenagaz hasi du aurtengo denboraldia

Mikel Garitaonandiaren mutilek goitik behera agindu zuten; Oier Ardanza durangarrak zortzi puntugaz lagundu zion taldeari; egindako biko lau jaurtiketak sartu zituen

SASKIBALOA • J.D.

Zornotza Saskibaloia Taldeak pasada ederra eman zion Gijon Baloncesto taldeari Zilarrezko Ligako lehenengo jardunaldian: 93-66. Mikel Garitaonandiaren mutilak gehiago izan ziren bigarren laurdenetik aurrera, eta garaipena ez zen une batean ere arriskuan egon. Hirukoen maratit egoki aritu ziren: 10 hiruko, %32ko portzentajeagaz.

Aurtengo fitxaketa bat, Reginald Agbeko ghanatarra, izan zen taldeko saskiratzaille nagusia: 19 puntu eta %80ko portzentajea biko jaurtiketetan (10etik 8). Oier Ardanza durangarrak 18 minutu jokatu eta zortzi puntu egin zituen: biko lau jaurtiketa egin eta laurak barrura joan ziren.

Lehenengo partidutik beste gauza bi ere nabarmendu daitezke. Batetik, Asier Artaraz gaztearen debuta izan zela Zornotzagaz Zilarrezko Ligan. Bestetik, aspaldiko partez jokalariek zaleen berotasuna sentitu zutela Larreako kantxan.



Zornotza-Gijon partiduko irudia. LUIS ITURRIOZ

Jokaldia

Zu entrenatzailea? Zergatik ez!

Apurka-apurka normaltasunera bueltatzen ari gara, eta martxan dira berriro ere talde kirolak. Eta itzulera honetan arazo bat sortu da klub gehienetan, entrenatzaileen beharra.

Nire kirol ibilbidean hainbat esparru jorratu behar izan ditut, jokalaria zein entrenatzaile lanetan aritu naiz. Jokalari lez hasieran futboleko eta geroago errugbian eman ditut urte asko. Futbol sasoiko oroitzenen Isidoro Sanchez etortzen zait burura. Beragandik jaso nuena sekulan ez dut ahaztuko.

Geroago, errugbian, Iñigo Barrenetxea izan nuen lehen entrenatzailea. Lehengusua izateaz gain, aitortu behar dut meritu handia izan zuela, urte horietan gazte "banda" bat zena, taldea bihurtzea lortu zuen eta horrekin batera albokoa laguntzeko eta babesteko sena zabaldu zuen kide guztien artean.



Gotzon Gomez Barrenetxea
Errugbia

"Normaltasunerako itzulera honetan arazo bat sortu da klub gehienetan, entrenatzaileen beharra"

"Irakurle estimatua, ausartuko zinateke hainbeste maite duzun kirol horretan monitore lanetan aritzen?"

Geroago Jokin Azpitarte eta Ortzi izan ditut entrenatzaile gertuenak. Gaur egun, biak lagunak ditut, beraiek talde moduan zein arlo pertsonalean genituen gaitasunak identifikatzeko gai izan ziren, eta taldearen mesederako norbanakoenak indartzeko gai izan

ziren. Nire kasuan, zelai barruan nire esku utzi zuten taldea gidatzeko ardura.

Aipatutako pertsona horiek kontu ugari utzi zizkidaten, bakoitzak berea. Nire helburu bakarra, nik jasotako hori guztia modu batean edo bestan bueltatzea eta zabaltzea zen. Ikaletakoa zabaldu eta hurrengo belaunaldietan ere, norberak dituen mugak onartuz. Prozesu horretan maitasun eta pazientzia handia jarritz.

Hau dena esanda, irakurle estimatua, gonbidapen berezia egin nahi nizuke, kirolaria izan zaren heinean, ausartuko zinateke hainbeste maite duzun kirol horretan monitore lanetan aritzen? Hainbeste sufrimendu, buruhauste, izerdi... baina aldi berean poza, autoestimua eta lagun ugari eman dizkizun kirol horren zabalkundearen partaidea izateko prest zaude? Horra egiten dizudan erronka: zu entrenatzailea, zergatik ez?

ETXETXO
G. INMOBILIARIA
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com

AMBOTO
INMOBILIARIA
Sanagustinalde, 4 - 1 ez. • 48200 DURANGO

ISD Inmobiliaria
del Duranguesado
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com

Fernando Uribe
AGENCIA INMOBILIARIA
Barrenkalea, 15 behe • DURANGO
Tel.: 946 816 423 • www.fernandouribe.es

// AUKERA

IURRETA: Santa Maña. 3 logela, komunak, egongela eta sukalde. 15 m²-ko trastelekua. Parking pribatua. **C.E.E=F 160.000 €**

DURANGO: Berriztatua. 3 logela, komuna, sukalde eta egongela. **C.E.E: F 130.000 €**

BERRIZ: 74 m². 3 logela, komuna dutxagaz, sukalde eta egongela. Terraza. Igogailua. C.E.E= F ALOKAIUAN, EROSTEKO AUKERAGAZ. **110.000 €**

ZALDIBAR: 2 logela, komuna, sukalde eta egongela. Terraza. Eguzkitsua. Berriztatua. C.E.E=E Alokairuan, erosteko aukeragaz. **99.000 €**

MATIENA: 3 logela, komuna, sukalde, egongela eta despentsas. Terraza. Igogailua. **C.E.E:F 149.000 €**

// ETXEBIZITZAK SALGAI

ARTEKALEA: 3 logela, 2 komun, sukalde eta egongela handiak. Terraza. Trastelekua. Igogailua. Bizitzera sartzeko moduan. **C.E.E=E 180.000 €**

ABADIÑO: 2 logela, 2 komun, sukalde eta egongela. Terraza. Ganbara. Garajea eta trastelekua. Etxe osoak kanpora ematen du. Argitsua. **C.E.E=E 188.000 €**

J.M. ALTONA: 3 logela, komuna, sukalde eta egongela. Ganbara. **C.E.E=G 199.500 €**

ASKATASUN ETORBIDEA: 3 logela, komuna eta sukalde. Etxe osoak kanpora ematen du. **C.E.E=G garajearekin. 178.000 €**

IURRETA: Bixente Kapanaga. 92 m². 3 logela, komuna, sukalde eta egongela. Terraza. Eguzkitsua. **C.E.E=G 205.000 €**

SANTA ANA: 3 logela, komuna, sukalde handia eta egongela. Berogailua. Lehio berriak. Ganbara. **C.E.E=E 125.000 €**

ANBOTO: 3 logela, komuna, sukalde handia eta egongela. Balkoia. **C.E.E=F 185.000 €**

ZALDIBAR: Euskal Herria. 2 logela, 2 komun sukalde eta egongela. Terraza. Garaje itxia. **C.E.E=E 198.000 €**

MIKELDI: Etxebizitza altua. 3 logela, komuna, sukalde eta egongela. Igogailua. C.E.E= E. **155.000 €**

MATIENA: Erezena. 3 logela, komuna, sukalde-egongela eta despentsa. Terraza. Ganbara. Igogailua. **C.E.E=E 155.500 €**

MATIENA: Pisu altua. 3 logela, komuna eta sukalde handia. Igogailua. Ganbara. **C.E.E=G 120.000 €**

MATIENA: 3 logela eta komuna. Etxe osoak kanpora ematen du. Ikuspegiak. **C.E.E=E 104.000 €**

IURRETA: DANTZARI. 3 logela, komuna, sukalde eta egongela. Terraza. **C.E.E= F. 140.000 €**

MADALENA: 132 m². 4 logela, 2 komun, sukalde eta egongela. 2 terraza. 2 ganbara. Garajea eta bodega-trastelekua. **C.E.E=F 286.000 €**

EZKURDI: 175 m². 5 logela, 3 komun, sukalde handia eta egongela. Ganbara. Garajea aukeran. **C.E.E=F. 325.000 €**

KURUTZIAGA: 80 m². 3 logela, komuna, sukalde-jangela eta egongela. Terraza. Ganbara. BERRIZTATUA. **C.E.E=G 179.500 €**

BERRIZ: 2 logela, komuna, sukalde eta egongela. Terraza. Argitsua. Berriztatua. **C.E.E=E 130.000 €**

MAÑARIA: Etxebizitzak eta atikoak. Estreinatze. **125.000 €**

ABADIÑO: 1.000 m²-ko lursaila, eraikitze baimenagaz. 250.000 €

ABADIÑO: Etxea. Berriztatu beharreko eraikina. 152 m²-ko 3 solairu eta behe estalpea. **200.000 €**

GARAI: Baserría. 237 m². 15.624 m²-ko lursaila. **C.E.E=G**

IZURTZA: Baserría. 324 m²-ko eta 134 m²-ko bi etxebizitzatan banatuak. 3 solairutan banatuak. **C.E.E=E 640.000 €**

//LOKALAK ETA GARAJEAK SALGAI

ERMODO: 60 m². Alokairuan. 1.200€

TRONPERRI: 60 m². Etxebizitza egiteko aukera. **64.000 €**

ARTEKALEA: Lokala. Alokairuan / Salgai. **550 € / 120.000 €**

F.J. ZUMARRAGA: Alokairuan / salgai. 80 m². Izkina bi kaletan. Dena da erakusleioa. Oso komertziala.

F.J. ZUMARRAGA: AUKERA. 114 m². **SALMENTA 175.000 €**

ASK.ETORBIDEA: Garaje itxia. **24.000 €**

ASK.ETORBIDEA: Garajeak **4.800 €-TIK AURRERA.**

// ETXEBIZITZAK SALGAI

DURANGO: Pablo Pedro Astarloa. Pisu berriztatua. 3 logela, komuna, sukalde jantokiagaz eta egongela.

DURANGO: Antso Estegiz. 3 logela, 2 komun, sukalde-jangela eta egongela. Ganbara.

DURANGO: Hegoalde kalea. Adosatua salgai. 4 logela, 4 komun, txokoa, terraza eta lorategia. Ezin hobea.

MAÑARIA

KIRIKIÑO KALEA: 3 logela, komuna eta sukalde. Balkoia. Igogailua. Argitsua.

ABADIÑO

ETXEAZPIA KALEA: Pisu zabala, 3 logela, 2 komun, sukalde balkoiagaz eta egongela. Ganbara. Garaje itxia aukeran.

BERRIZ

ELIZONDO ETXETALDEA: Pisu guztiz eguzkitsua. Egongela, jangela, sukalde, 2 komun eta 3 logela. Garaje itxia aukeran.

BERRIZ: 3 logela, komuna eta egongela. Ganbara. Eguzkitsua. Merkea.

ATXONDO: 2 logela, komuna, sukalde eskegitokiagaz, despentsa eta egongela.

//LURSAILAK SALGAI

GAZTELUA: 10.000 m²-ko lursaila. Nekazaritza-lurra. Leku onean. Egokia.

IURRETA: 5 hektarea inguruko lursaila. Abeletxe bat egiteko aukeragaz. Sarbide ona.

//BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

ATXONDO: AXPE. Baserrí ederra salgai. Berriztatzeko. Kokapen izugarria.

ATXONDO: ARRAZOLA. Izugarriko baserría salgai. 40.000 m²-ko lur saila. Berriztatzeko.

ELORRIO: Araunas auzoa. Baserrí eder bat eraikitze. 10.000 m². Ikuspegi izugarriak.

MAÑARIA: 3 solairuko etxe ederra. Herri erdian. Udaletxe ondoan. 160 m² solairu bakoitzean. Aukera ederra Mañaria erdian bizitzeko.

MAÑARIA: Baserría salgai. Herrian bertan. 3.000 m²-ko lursaila. Bizitzera sartzeko moduan. Oso polita.

ELORRIO: Aldape auzoa. Baserría, berriztatzeko. 3 hektareako lursaila. Prezioa: 115.000 €

MENDATA: Lamikiz auzunea. Bizitza biko baserría. Berriztatzeko. Eguzkitsua. Prezio interesgarria.

DURANGO: Adosatu ederra, izkinakoa. Guztiz jantzita. Estreinatze.

//BULEGOAK ALOKAIUAN

ABADIÑO

30 m²-tik gorako bulegoak. 300 €-tik hasita. Argia eta wifia barne.

//GARAJE ITXIAK SALGAI

Durango, garaje itxiak salgai 25.000 €-tik aurrera.

//LOKALAK ALOKAIUAN

Alde Zaharrean, hainbat tamainatako lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu.

//LOKAL INDUSTRIALA

ALOKAIUAN

BERRIZ: Eitua industrialdea. 800 m²-ko pabilioia. Aldagelak, komuna eta ofizinekin.

MATIENA: 460 m²-ko lokala salgai. Bulegoa, komuna eta aldagela. Oso egokia.

www.inmoduranguesado.com

MATIENA 3 logela
65 m²

TRAÑABAREN HIRIBIDEA: Egongela, sukalde jantzia, eta komuna. Balkoia. Etxe osoak kanpora ematen du. (mendebaldea). ALTUA. ARGITSUA. LEKU ONEAN KOKATUA. 8 m²-ko ganbara. Igogailua. Bizitzera sartzeko moduan.

175.000 € C.E.E:E negoziagarria

DURANGO 2 logela
43 m²

ANTSO ESTEGIZ: Egongela, sukalde jantzia, 2 logela, eta komuna. Etxe osoak kanpora ematen du. (iparraldea). HERRIGUNETIK OSO GERTU. GUZTIZ BERRIZTATUA. 5M2-ko ganbara du. ITE oraintsu pasatutakoa.

169.000 € C.E.E:G

DURANGO 3 logela
115 m²

ASKATASUN ETORBIDEA: Egongela, sukalde jantzia, jantzeko gela, 2 komun eta 2 m²-ko despentsa. Balkoi itxia. Pisu altua. Etxe osoak kanpora ematen du (hegoaldea), argitsua eta ikuspegi ederrek. Leku onean kokatua. Zonalde berdeak eta zerbitzu eremuak. EGOERA ONEAN. Garaje handia eta trastelekua. Igogailua.

320.000 € C.E.E: Bidean

DURANGO 79 m²
3 logela

IPARAGIRRE: Egongela, sukalde jantzia, 2 komun eta despentsa. Balkoia. Etxe osoak kanpora ematen du. (mendebaldea) ARGITSUA. LEKU ONEAN KOKATUA. Garajea. Igogailua. Bizitzera sartzeko moduan.

245.000 € C.E.E: E negoziagarria

ABADIÑO AUKERA 2 Logela

ITURRITXO: 16 urteko antzinasuna. Egongela, sukalde jantzia, eta 2 komun. 2 balkoi. Etxe osoak kanpora ematen du. Argitsua. (Hegoalde) Igogailua. Ezin hobea. 14,05 m²-ko garajea, 4,63 m²-ko trastelekua eta 11 m²-ko ganbara barne. Leku onean.

188.000€ C.E.E: E

DURANGO 52 m²

ANTSO ESTEGIZ: 52 m². Egongela, sukalde jantzia, 2 logela eta komuna. Balkoia. Pisu altua. Etxe erdiak kanpora ematen du. HERRIGUNETIK OSO GERTU. Instalazio elektrikoa eta iturgintzakoa berri-berriak. ITE oraintsu pasatutakoa. Igogailua.

155.000 € C.E.E: E

//DURANGO

ANTSO ESTEGIZ: 3 logela, sukalde, egongela eta 2 komun. Balkoia. Igogailua. Garaje itxia aukeran. **180.000 € / E.E.Z=E**

ASKATASUN ETORBIDEA: 3 logela, sukalde, egongela, despentsa eta 2 komun. Igogailua. Garajea eta trastelekua. **320.000 € / E.E.Z=E**

BARRENKALEA: Konpontzeko dagoen eraikina. Sotoa, behe-solairua eta 3 pisuko altuera. **350.000 € / E.E.Z=F**

EZKURDI PLAZA: 4 logela, sukalde, egongela eta 3 komun. Igogailua. **LEHEN 321.500 € / ORAIN 288.000 € / E.E.Z=F**

FRAY JUAN DE ZUMARRAGA: 3 logela, sukalde, egongela eta komuna. Bulegoa. **200.000 € / E.E.Z=E**

GOIENKALEA: 2 logela, sukalde, egongela eta komuna. Balkoia. **135.000 € / E.E.Z=E**

GOIENKALEA: 3 logela, sukalde, egongela eta komuna. **LEHEN 155.000 € / ORAIN 149.000 € E.E.Z=G**

KOMENTU KALEA: 3 logela, sukalde, egongela eta komuna. Igogailua. Ganbara eta garaje itxia. **230.000 € / E.E.Z=E**

SAN AGUSTINALDE: 2 logela, sukalde, despentsa, egongela eta 2 komun. 2 balkoi. **200.000 € / E.E.Z=F**

SAN FRANZISKO: 3 logela, sukalde, egongela eta komuna. Garaje itxia. Igogailua onartuta. **195.000 € / E.E.Z=E**

SANTIKURUTZ KALEA: Etxebizitza bifamiliarra eraikitze 600 m²-ko lurzorua. **LEHEN 640.000 € / ORAIN 550.000 €**

ATXONDO

ARRAZOLA ERREPIDEA: 2 logela, sukalde, egongela eta 2 komun. Igogailua. Garajea eta trastelekua. **170.000 € / E.E.Z= BIDEAN.**

BERRIZ

BERRIZBEITIA KALEA: 2 logela, sukalde, egongela, bainugela eta balkoia. **120.000 € / E.E.Z=F**

BIDEGAIN KALEA: 3 logela, sukalde, egongela eta 2 komun. Terraza. Igogailua. Ganbara eta garajea. **210.000 € / E.E.Z=E**

MURGOITIO AUZO: Berreraikitze berriratu lurturuz. **290.000 €**

IURRETA

OROZKETA AUZO: 4 logela, 2 sukalde, egongela eta 2 komun. Terraza. Lursailagaz. **LEHEN 650.000 € / ORAIN 595.000 € / E.E.Z=E**

MATIENA

TRAÑABAREN: 3 logela, sukalde, egongela eta komuna. Balkoia. Igogailua. Ganbara. **175.000 € / E.E.Z=E**

OTXANDIO

ARTEKALEA KALEA: 4 logela, sukalde, egongela eta komuna. Balkoia. **60.000 € / E.E.Z=G**

GONBILAZ AUZO: Baserría. 5 logela, sukalde, egongela eta 2 komun. Terraza. Ganbara. Lursailagaz. **350.000 € / E.E.Z= BIDEAN.**

ALOKAGAI

Etxebizitzak, bulegoak, pabilioiak, lokal komertzialak eta garajeak. Bulegoan galdetu.

GARAJEAK SALGAI

Durango eta lurretan, aukera desberdinak: garaje itxiak, partzelak eta partzelak trastelekuagaz.

BERRIAK - DURANGO

MIKELDI KALEA: 2 logela, sukalde balkoiarekin, egongela eta 2 komun. Igogailua. Ganbara eta garaje itxia. **230.000 € / E.E.Z =E**

Eskelak jartzeko: 946 816 558
edo anboto@anboto.org

Eskela mota guztiak

- Anboto paperean + anboto.org-n: 100€ (Anboto txartela dutenentzat 90€)
- Paperean: 60€ (Anboto txartela dutenentzat 50€)
- Webgunean: 60€ (Anboto txartela dutenentzat 50€)

Botikak

BARIKUA, 15 · 09:00-09:00

IRIGOIEN Bixente Kapanaga
3 - **IURRETA**

MELERO, ROSA MARI
San Pedro 31 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte
poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

IRUARRIZAGA, KARMELE San
Miguel 15 - **ZORNOTZA**

SARASKETA, DIEGO Luis
Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

ZAPATUA, 16 · 09:00-09:00

GAZTELUMENDI J.A.
Abasolo 2 - **DURANGO**

MELERO, ROSA MARI
San Pedro 31 - **ZORNOTZA**

09:00-13:30

IRIGOIEN Bixente Kapanaga
3 - **IURRETA**

NAVARRO Artekalea 6 - **DURANGO**

BAZAN DIAZ Uribarri 5 - **DURANGO**

UNAMUNZAGA Muruetatorre
2C - **DURANGO**

DE DIEGO Intxaurreondo
22. - **DURANGO**

SARRIA Sasikoa 17, **DURANGO**

CAMPILLO Montevideo
etorb. 24 - **DURANGO**

FARMAZIA MATIENA
Trañabarren 15. - **ABADIÑO**

JAIO-ABENDIBAR
Errekakale 6. - **ELORRIO**

IRUARRIZAGA, KARMELE San
Miguel 15 - **ZORNOTZA**

GUTIERREZ, IBAN Txiki
Otaegi 3 - **ZORNOTZA**

GOIRIA, MARI CARMEN
Sabino Arana 6 - **ZORNOTZA**

09:00-14:00

IRIGOIEN Bixente Kapanaga
3 - **IURRETA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte
poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

SARASKETA, DIEGO Luis
Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

DOMEKA, 17 · 09:00-09:00

IRIGOIEN Bixente Kapanaga
3 - **IURRETA**

MELERO, ROSA MARI
San Pedro 31 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SARASKETA, DIEGO Luis
Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

ASTELEHENA 18
· 09:00-09:00

SARRIA Sasikoa 17, **DURANGO**

SARASKETA, DIEGO Luis
Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte
poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

IRUARRIZAGA, KARMELE San
Miguel 15 - **ZORNOTZA**

MARTITZENA, 19
· 09:00-09:00

UNAMUNZAGA Muruetatorre
2C - **DURANGO**

SARASKETA, DIEGO Luis
Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte
poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

IRUARRIZAGA, KARMELE San
Miguel 15 - **ZORNOTZA**

EGUAZTENA, 20 09:00-09:00

CAMPILLO Montevideo
etorb. 24 - **DURANGO**

SARASKETA, DIEGO Luis
Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte
poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

IRUARRIZAGA, KARMELE San
Miguel 15 - **ZORNOTZA**

EGUENA, 21 · 09:00-09:00

GAZTELUMENDI J.A.
Abasolo 2 - **DURANGO**

SARASKETA, DIEGO Luis
Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte
poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

IRUARRIZAGA, KARMELE San
Miguel 15 - **ZORNOTZA**

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG · EGUAZTENEN 14:00AK ARTEKO EPEA



GOZATU GOZOTEGI-OKINDEGIA

Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
facebook: Gozatu Gozategia

Zorionak, **Miguelito (864. alea)**! Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoitzan: Bixente Kapanaga, 9an.



Zorionak, **Auritz!** Oso ondo pasa zure egunean. Muxu potolo bat familia guztiaren partez.



Zorionak, **Aunitz**, urriaren 14an 11 urte ein dozuz. Jarraitu zaren modukue izeten, etxeko guztixen partez.



Azkenien heldu da zuen egune. Bihar danon artien ospatuko dogu.



Zoridxonak, **Lur**, ondo paseu eta ikisi jantzan.

Eguraldia

ZAPATUA ↓ 22° / 9° ☁

ASTELEHENA ↓ 24° / 12° ☁

EGUAZTENA ↓ 23° / 14° ☁

DOMEKA ↓ 23° / 11° ☁

MARTITZENA ↓ 26° / 14° ☁

EGUENA ↓ 21° / 12° ☁

hitz artekalea 23, durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

liburudenda

#salduenak

1^o

MIÑAN
Amets Arzallus & Ibrahima Balde (Susa)

2^o

AITAREN ETXEA
Karme Jaio (Elkar)

3^o

MIREN AGUR MEABE
nola gorde errautsa kolkoan
Miren Agur Meabe (Susa)

4^o

TURISTA KLASA
Kattalin Miner (Susa)

5^o

HANNAH ARENDT
Hannah Arendt (Katalrak)

“Rugby taberna zabaltzeko gogoz egon da jendea, eta oso pozik gaude harreragaz”

Durango Rugby tabernak berriro ere zabaldu ditu ateak, abuztuan eta irailean itxita egon eta gero. Ibilbide berri honetan, errazioak eta kultur ekintzak eskainiko dituzte



Jon Zuazubiskar Saez de Maturana

Rugby taberna hartu du
DURANGO | 1994

DURANGO • AITZIBER BASAURI

Durango Rugby Taberna zabaldu dute urrian. Jon Zuazubiskar sukaldari durangarra eta Xabier Sánchez komunikatzaile eta dibulgatzaile gastronomiko sestaoarra daude tabernaren norabide berriaren atzean. Osasun larrialdia bertan behera geratu ondoren, neurri murriztailerik bako lehenengo asteburua izan dute pasatu berri duguna. Pozik daude herritarren harreragaz.

Zelan etorri zaizue Rugby taberna hartzeko aukera?

Orain pare bat urte eskaini zidaten aukera, baina ordurako beste proiektu batean hasita nengoan. Oraingoan, ostera, neure kontura

lanean hasteko gogoz egon naiz. Hauxe zen momentua.

Erronka handia izan da?

Bai, neure gain hartzen dudana lehenengo proiektua delako. Betidanik gura izan dut neure proiektua martxan ipini. Rugby taberna esperientzia hartzeko modua da, etorkizun batean neure proiektu propioa martxan ipini ahal izateko. **Sukaldaritzan baduzu eskarmentua.**

Bai, bederatzi urtean lan egin dut ostalaritzan, sukaldean. Tabernako barraren atzean estreinako aldia da.

Sanfaustoetako lehenengo asteburu luzea izan duzu hau. Zelan joan da?

Neurri murriztailerik bako lehenengo asteburua izanik, jendeak

gogo handiz irten du. Rugby taberna zabaltzeko gogoz egon da jendea, eta oso pozik gaude harre-

Irlandan eta Ingalaterran sorturiko kirola da errugbia. Bada, hango gastronomian oinarrituriko errazio eta pintxoak eskaini gura ditugu iluntzetan

ragaz. Oso asteburu gogorra izan da, baina pozarren gaude. Beti izan dut hartu-eman errugbiagaz, eta ordu asko egin dut Rugby tabernan

laguntzen. Etxe bat izan da niretzat orain arte, eta are gehiago orain. Pintxo-pote egunetan ere etorri izan naiz laguntzera.

Eskaintza berriua egin gura duzue. Zelan egingo duzue?

Irlandan eta Ingalaterran sorturiko kirola da errugbia. Bada, hango gastronomian oinarrituriko errazio eta pintxoak eskaini gura ditugu iluntzetan, tokiko eta gertuko produktuen alde apustu eginda. Urri amaieran hasi gura genuke. Ez dakigu zelako harrera izango duen. Garagardo eskaintza berezia ere egin gura dugu. Karta lantzeko, Saltsanen aholkularitza dugu.

Kultur ekintzak ere egingo dituzue.

Taberna girotzeko, kultur eskaintza xumea lotu gura dugu. Rugby tabernaren 30. urteurrenean egin zen eskaintza hura berreskuratu gura dugu, bariku gauean. Formatu txikiko ekintzak izango dira (bakarrizketak, abeslariak...), tabernak emandako aukeren barruan.

Durango gozogintzako lantegi txiki bat edukitzea gura nuke. Amets bat betetzea litzateke

Gozogintzan ere murgildurikoa zara.

Bai. Basque Culinary Centerren (BCC) masterra egin nuen eta proiektu txiki bat ipini nuen martxan. Etxean pastelak egiten hasi nintzen, enkarguz. Proiektu txiki hura handitzen hasita zegoela ikusita, utzi egin nuen. Ez neukan nahikoa baliabiderik aurrera egiteko. Sukaldari batek gozogintzaz ezer gutxi dakiela konturatu nintzen. Berdin gozogile batek sukaldaritzaz. Horregaitik, sukaldari lez gozogintza ikastea erabaki nuen.

Gura zenuke gozogintzan jardun?

Bai, Durango gozogintzako lantegi txiki bat edukitzea gura nuke. Amets bat betetzea litzateke.

Pandemia oso gogorra izan da ostalaritzarentzat. Emango zaio buelta?

COVID-19agaz bizitzen jakin behar dugu, denon artean aurrera egiten. Jendea gogoz dago kalera irteteko, oportetarako, eta ostalaritzak ere emango dio buelta egoerari.

Lau-hortza

Alina Ahtamon Medikua



Bizitza

Badakizue normalean bizitza buruzko gauzez idazten dudala; gaur ere, hala izango da. Momentu honetan, goizeko zortzietan, nire autoa tailer baten utzi eta gero, Mawen deitzen den kafetegian nago, Txile hegoaldean, Puerto Varas deitutako herri ospetsu batean. Hemen, dagoeneko udaberrian sartzen ari gara; beraz, eguzkia distiratsu dut goian, Llanquihue deitutako lakuan bere arrastoa uzten duela, Txileko lakurik handienetarikoa; Spotify-en musika klasikoa jarri, belarrietan entzungailuak

Eguzkia distiratsu dut goian, Llanquihue deitutako lakuan bere arrastoa uzten

ipini inor ez ernegatzeko, eta pentsatzen hasten naiz... badakit senarra eta alaba etxean lasai-lasai lo geratu direla, eta osasuntsu eta ziur daudela. Hau bai hau bizitza! Momentu eder honetaz disfrutatzen dudana bitartean, ezinezkoa egiten zait nire gaixoez ez pentsatzea, COVIDak eta pandemiak sortutakoaz, Pakistango arazoez, klima aldaketaren inguruko gaiez, gaur egun dagoen delinkuentziaz, korrupzioaz, erlijio gatazkez, emakumeen aurkako indarkeriaz, eta abar. Une batean irudi gehiegi pasatzen zaizkit buruan, baina bizitza hori dena dela suposatzen dut, bizitzak hori guztia dakarrela amaitzen dut nire hausnarketa... Hori dela-eta, dagoen bezala bizitza beste aukerarik ez dugu.

